

# ETABE

2004ko azaroa  
**352.** Zenb.  
2,63 € (B.E.Z. barne)

euskara ikasten ari garenon aldizkaria



## Klaudio Landa

"Hizkuntzak ondo ikasteko  
maitemindu egin behar duzu!  
Asko aurreratzen da"

 ALE HONEKIN  
CD AUDIOA OPARI

**Gaurero:**

Martin Ibarbia, ETBren  
sortzaileetako bat

**Interesgunea:**

Heriotzak hiru  
lege ditu

**Bidaia:**


Xangai:  
Ekialdeko hiriburua

**Erdian:**

*Azken eguneko  
bidaia irrati-nobela  
(II)*

# HABE

# aldizkaria non



## GIPUZKOA

### ANDOAIN

ERNAITZA LIBURUDENDA  
Zumea, 2  
20140 ANDOAIN

### BERGARA

ETXEPARE-BILINTX  
MEGADENDA  
Ibargarai, 12  
20570 BERGARA

### DONOSTIA

HONTZA LIBURUDENDA  
Okendo, 4  
20004 DONOSTIA

### BILINTX MEGADENDA

Fermin Calbeton, 21  
20003 DONOSTIA

### RAMOS LIBURUDENDA

Bergara, 6  
20005 DONOSTIA

### IRUN

BERTSOHOP-BILINTX  
MEGADENDA  
Paseo Colon, 8  
20300 IRUN

### OSKARBI LIBURUDENDA

Paseo de Colon, 11  
20302 IRUN

### TOLOSA

BILINTX MEGADENDA  
Aroztegieta, z/g.  
20400 TOLOSA

### OÑATI

IBARRONDO LIBURUDENDA  
Plaza. Fueros, 10  
20560 OÑATI

### ZARAUTZ

GAROA LIBURUDENDA  
Trinidad, 7  
20800 ZARAUTZ

## BIZKAIA

### BARAKALDO

MILOS PALENZUELA  
LIBURUDENDA  
Uribe Merindadea, 14  
48901 BARAKALDO

### BASAURI

BIOK LIBURUDENDA  
Dr. Garay, 11  
48970 BASAURI

### BILBO

CASA DEL LIBRO-URQUIJO  
Alda. Urquijo, 94  
48009 BILBO

### CASA DEL LIBRO,

LA LIBRERÍA  
Colon de Larreategi, 41  
48009 BILBO

### MACEDA LIBURUDENDA

Santa Clara, 16  
48006 BILBO

### HERRIAK LIBURUDENDA

Licenciado Poza, 11  
48008 BILBO

### VERDES LIBURUDENDA

Correo, 7a  
48005 BILBO

### URRETXINDORRA MEGADENDA

Iparragirre, 26  
48011 BILBO

### LIZARDI LIBURUDENDA

Heliodoro de la Torre, 9  
48014 BILBO

### CAMARA LIBURUDENDA

Euskalduna, 6  
48008 BILBO

### BINARIO LIBURUDENDA

Iparragirre, 9 bis  
48009 BILBO

### KUKUMA LIBURUDENDA

Colon de Larreategi, 21  
48001 BILBO

### KIRIKIÑO LIBURUDENDA

Colon de Larreategi, 11  
48001 BILBO

### LAUAXETA LIBURUDENDA

Rodríguez Arias, 45  
48011 BILBO

### DURANGO

HITZ LIBURUDENDA  
Artekalea, 14  
48200 DURANGO

### LEIOA

ARTAZA LIBURUDENDA  
E.H.U. Leioako Kanpusa  
Posta kutxa 56  
48940 LEIOA

### SANTURTZI

TEMAS LIBURUDENDA  
Pagazaurtundua, 3  
48980 SANTURTZI

## ARABA

### GASTEIZ

ARRIAGA MEGADENDA  
San Prudencio, 7  
01005 GASTEIZ

### CASA DEL LIBRO-AXULAR

LIBURUDENDA  
Arka, 11  
01005 GASTEIZ

### STUDY LIBRERÍA

Fueros, 12  
01004 GASTEIZ

### AYALA LIBURUDENDA

CAMPUS ARRIAGA

## NAFARROA

### ARBIZU

BERIAIN LIBURUDENDA

### ETXARRI

KAXETA LIBURUDENDA

### IRUÑA

AUZOLAN LIBURUDENDA  
San Gregorio, 3  
31001 IRUÑA

### AUZOLAN LIBURUDENDA

(Berria)  
Tutera, 16  
31003 IRUÑA

### XALEM MEGADENDA

Avda. Baiona, 52 (Golem  
Eraikuntza)  
31008 IRUÑA

### LIBRERÍA GOMEZ (RIOJA)

Pío XII (Esq. Rioja)  
31008 IRUÑA

### LIBRERÍA EL PARNASILLO

Castillo de Maya, 45  
31004 IRUÑA

## IPARRALDEA

### BAIONA

MATTIN MEGADENDA  
Saint André plaza  
64100 BAIONA

Helbide honetara bidali behar da:  
**HABE** aldizkaria  
Vitoria-Gasteiz kalea, 3  
20018 DONOSTIA

**HABE**  
Hizkuntza Aldearen Berriak

Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del



Formulario honetako datuak fitxategi automatizatu batean bilduko dira, HABEK aldizkaria jasotzeko eskabideak kudeatu ahal izateko. Fitxategi datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, HABEra jo dezakezue: Vitoria-Gasteiz kalea, 3-6. 20018 Donostia.

## HARPIDETZA-ORRIA

Izen-delturak:.....  
Zein euskaltegitan ari zara ikasten?.....  
Identifikazio Fiskalaren Kodea / Nortasun-agiria: .....  
Helbidea: ..... Telefonoa: .....  
Herria: ..... Posta-kodea: ..... Probintzia: .....  
Posta elektronikoa: .....

HABE aldizkaria jaso nahi dut etxean. (Urtean 11 ale: 22,80 €). Euskaltegi bateko ikasle bazara, harpidetza 11,40 €.

Honela ordainduko dut:

- HABEren izenean luzaturiko txeke bidez (erantsi txekea harpidetza-orri honi)  
 Transferentzi bidez (kutxa 2101.0381.01.0003069002) (erantsi agiria harpidetza-orri honi)  
 Kontu korrante bidez: Bankua edo Aurrezki Kutxa: .....  
Sukurtsala: ..... K.D.: .....  
Zenbakia: .....

OHARRA: Egin daiteke harpidetza HABENET-en bidez ere: [www.habe.org](http://www.habe.org)

06



07



15



24



30



36



## 05 SAREAN

[www.erabili.com](http://www.erabili.com)

## 06 GAURGERO MOTZEAN

## 07 GAURGERO

- Martin Ibarbia: "Beste kate eta hizkuntzekin homologatuko bagara, euskarazko fikzioa egin behar da"
- Bizi-testamentua, duintasunez hil nahi duenarentzat
- IZURUNGOAK, 2. hizkuntza-eskakizunerako langaiak

## 14 GAURGAZTE

Lagunartean ere, euskaraz

## 15 INTERESGUNEA

Heriotzak hiru lege ditu

## 23 HAMAIIKA TRIKIMAILU

Abdelbasset Abdelatty

## 24 ELKARRIZKETA

Klaudio Landa: "Hizkuntzak ondo ikasteko maitemindu egin behar duzu! Asko aurreratzen da"

## 27 BIDAIA

XANGAI: Ekialdeko hiriburua

## 30 ZINEA

Hain ondo ematen dizu heriotzak!

## 32 KOMIKIA

Basoko giltza (IV. atala)

## 36 KULTURONTZIA

- Guggenheimen Oteiza: mitoa eta modernotasuna
- Argitalpen berriak



Habe @Idizkarian ikusgai

# 352

### ERREDAKZIOA:

Esther Isasa  
Eskarne Lopetegi  
Juan Miguel Gutiérrez  
Ion Imanol Iturriotz  
Alex Mungia



DISEINUA ETA MAKETAZIOA:  
Zirrimarra/Truke  
(Andoain-Beasain)

MARRAZKIAK:  
Josetxo Sastre  
Iñaki G. Erro (wentxi)

INPRIMATEGIA:  
LEITZARAN  
Andoain, Gipuzkoa

LEGEZKO GORDAILUA  
BI- 2251/81  
ISSN: 0212-6788

Euskal Autonomia Erkidegoko  
Administrazio Orokorra  
HABE

[www.habe.org](http://www.habe.org)  
Tel. 943 02 26 00  
Faxa: 943 02 26 01  
e-mail: [argitalpenak@habe.org](mailto:argitalpenak@habe.org)  
Harpidetza: [harpidetzak@habe.org](mailto:harpidetzak@habe.org)



Beti bezala, kanpotik jasotako kontsultak, iradokizunak eta beste hainbat kontu ekarri ditugu zurea den txoko honetara. Gogoan izan zuk ere idatz dezakezula!



Lehenengo eta behin, aurreko alean proposatu genizuen lehiaketaren erantzuna emango dizuegu, baita erantzun zuzena bidali dutenen berri ere. Hona hemen:

### Lehiaketaren erantzuna

Perretxikoa 25. orrialdean zegoen, ELKARRIZKETA sailean, basoko argazkian ezkutatuta. Eta erantzun zuzena bidali dutenak, berriz, Olaia Mendiolea Mintegi (Bedia) Mertxe Martínez Ramos (Urduña), Nerea Linazasoro (Zestoa) eta Izaskun Gomez Retes (Idiazabal) dira.



Posta elektronikoz jasoa:

Kaixo!

Galderatxo bat: nola esaten da "durante la semana"? Ondo esanda al dago "astean zehar"?

Asier

*Zilegi da denborari buruzkoetan "zehar" erabiltzea:*

*"Zaila da asteen zehar antzekoa aurkitzea"*

*Baina ondoko esaldiek, adibidez, ez dirudite oso "naturalak":*

*— "Aste osoan zehar ez da halakorik gertatu"*

*Aste osoan ez da halakorik gertatu*

*— "Egun guztietan zehar jarriko da jendaurrean"*

*Egun guztietan jarriko da jendaurrean.*

*Beraz, ongi esana dago, baina kontuz ibili gehiegikeriekin. Ongi izan.*



Kaixo, lagunak:

Jaso dut 351. alea, basoari buruzkoa, eta alearekin batera banatu zen koaderniloa eta CDa. Kontua da CDan ez ditudala entzungaien testuak aurkitu eta nik uste nuela bertan zeudela? Ez al dut behar den bezala ireki?


Mila esker erantzuteagatik.

Oskar, Andoaindik

*Sentitzen dugu, Oskar, CDarekin halako nahaspila sortu izana, baina errua gurea da. Ez genuen argitu transkripzioak bigarren CDan datozela eta ez lehenengoan. Ale honekin batera datorren CDan, beraz, atal guztietako testuak aurkituko dituzu. Barkatu hanka-sartzea eta espero dugu irati-nobela zure gustukoa izatea.*

Komiki hau ikus eta entzuteko, jo helbide honetara: [www.habe.org/ikaslearengunea](http://www.habe.org/ikaslearengunea)

## Komikia




Zure txokoa da hau, idatziguzu!

# Sarean

05



## www.erabili.com



Sareen sarean euskararekin zenikusia duten web orriak aurkitzen saiatzen gara sail honetan. Oraingoan, Azpeitiko Euskara Patronatuarena aurkeztu nahi dizuegu, euskara hutsean dagoelako eta euskaraz aritzeko tresna ugari eskaintzen duelako, besteak beste.

Ikus ditzagun, banan-banan, dituen baliabideak:

### Lan-tresnak:

Eguneroko lana euskaraz egiten lagunduko dituzten tresnak aurkituko dituzu atal honetan. Lan tresna horiek guztiek, gainera, berezitasun bat ere badute: euskara hutsean daude.

- **Hiztegiak.** Hemen 20 hiztegiaren arteko aukera egin dezakezu.
- **Sare-bilatzaileak.** Sareen Sarean zerbait aurkitu nahi baduzu, sare bilatzaile onenak dituzu hemen (eta, gainera, euskaraz).
- **Euskaltzaindiaren Arauak.** Euskaltzaindiak hartutako erabakien berri zabala aurkituko duzu.
- **Liburutegia.** Hemen, besteak beste, euskal idazle klasikoaren liburuak oso-osorik eskura ditzakezu.
- **Fonoteka.** Hemen, berriz, euskal kantuen hitzak eta doinuak aurki ditzakezu.



### Zer berri:

**erabili.com**-ek hiru sare aldizkari ditu. Gainera harpidetuta dauden guztiek, erabat doan, informazioa sare-aldizkarietan argitaratu ahala jasoko dute beren postontzietan. Era berean, sare-aldizkarietan parte hartzeko aukera ere badago.

### Berri Berriak sare-aldizkaria

- **Berri Berriak** sare-aldizkariak euskararen aurrerabidearekin lotutako berriak argitaratzen ditu.
- **Berri Berriak** aldizkari elektronikoak plazaratzen dituen albisteek helburu bakar bat dute: euskarak egindako aurrerapausoen berri ematea.

### Iritzi-muinetik sare-aldizkaria

**Iritzi-muinetik** adituen iritzi eta jakite zabal-sakona zabaltzea du helburu.

### Galdezka sare-aldizkaria

**Galdezka** sare-aldizkariak euskararen edozein alderdiri buruzko informazioa eskaintzen du galde-erantzunen bitartez.

### Plangintzak

Atal honetan Azpeitiko Euskara Patronatuak eskuartearen dituen plangintzen nondik norakoak aurkituko dituzu.

### Eskatu

Hemen esku-eskura dituzu Azpeitiko Euskara Patronatuak jarritako zerbitzu guztiak.

- Itzulpen zerbitzua
- Dirulaguntzak
- Kartelak euskaratzeko zerbitzua
- Euskara ikastaroak
- Lan-mundurako prestatzeko programa

Gogoan izan helbidea: [www.erabili.com](http://www.erabili.com) ■

# Gaitzgero

## motzean

Hilabete honek berezkoa du tristura eta iluntasuna eta horregatik heldu diogu heriotzaren gaiari ale honetan. Honi guztiari aurre egin eta itxuraz aritzeko bidea elkarrekin egitea proposatzen dizugu.



### UMEEN BAT-BATEKO HERIOTZAREKIN LOTUTAKO GENEAK

**H**aurrak bat-batean hiltzen direnean eta medikua heriotzaren zergatia argitzeko gai ez denean, SIDS edo **Haurren Bat-bateko Heriotzaren Sindromeak** jota hil direla esan ohi dute. Normalean, haurrak sehaskan lotan daudenean hiltzen dira. Horrek ez du esan nahi, ordea, beste lekuren batean lo eginez gero gerta ez daitekeenik. Askotan medikuek zalantzak izan ohi dituzte heriotzaren zergatia argitzera-koan, maiz haurrek aurpegia zerbaitekin estalia dutela ito izana ere litekeena delako.

Adituen esanetan, bederatzia hilabete bete baino lehen jaioak haurrek, gutxi pisatzen dutenek eta ama oso gaztea denean jaioak SIDS izateko arrisku handiagoa dute. Gaitza, normalean, lehen hila-betea igaro ostean agertu ohi da.

Zientzialariek ez dute oraindik aurkitu gaitzaren iturria. Baina, haurren bat-bateko heriotza gertatze-ko arriskua handitzen duen gene bat, ordea, bai. AEBetako zientzialari batzuek diotenez, haurraren bai-tan gene honen ez ohiko bi kopia egoteak nerbio sistemari eragiten dio eta horrek garunaren ohiko fun-ctionamendua trabatzen du. Horren eraginez, garunak bihotzaren eta biriken gaineko kontrola galtzen du eta haurra hil egiten da.

### MOMIAK: GORPUAK KONTSERBATAN

**Z**ehatz-mehatz azaltzeko, momia denboraren eraginez lehor edo ustel ez dadin, gai balsamikoz kontserbatutako gorpua da. Hitzaren jatorria arabiarra da, *mumiya* hitzetik baitator eta "betu-nez edo **ziraiaz** igurtzia" esan nahi du.

Egiptiarrak izan ziren lehenak duela 3.000 urte saio hauek egiten, eta hauengandik ikasi zuten asirioek, judutarrek, eszitek eta pertsek. Orduko metodoei jarraiki, egiptiarrek gorpua hustu egi-ten zituzten, burmuinak eta **erraiak** kendu eta ondoren belar balsamiko eta beste sustantziekin bete. Gerora, zain eta arteriak **belar-gai usaintsuekin** betetzen ikasi zuten eta gorpua gai horie-kin igurtzi eta bustitako oihalez estaltzen. Asirioek ezta erabiltzen zuten, pertsek argizaria eta judu-tarrek espezieak eta aloea. Alejandro Handia eztiz eta argizariekin **balsamatu** zuten.

Gaur egun gorpua lur hartzea atzeratzeko edo infekzioak ez kutsatzeko balsamatzen dira. Kosmetikoak erabiltzen dira azaleko zauri edo keinu itsusiak estaltzeko. Odolez hustu egiten da gorpua eta haren ordez likido desinfektagarriak txertatzen dira; erraiak kendu, gai balsamikoekin atondu eta berriz gorpua ipintzen dira. Ondoren, hauts kontserbatzaileekin **hautsezatzu** da.



### NAHIGABEARI AURRE EGITEKO GOZOA BAINO HOBERIK EZ

**S**antu guztien egunean kanposantuko buelta egin ondoren, bazkari ederra egin eta postre gozoa jateko aukera izaten da. Guk aurea hartu eta egun honetako postrerik ospetsuena nola egin dezakezun azalduko dizugu. On egin!

**Osagaiak:** *Mazapana:* 200 g azukre, 150 g almendra ehotu eta 100 ml ur.

*Goringo-gozoa:* 100 g azukre, 4 arrautza gorringo eta 50 ml ur.

**Nola egin:**

*Mazapana:* surtan ura eta azukrearekin almibarra egin. Almendra erantsi eta ondo nahastu pasta itxura hartu arte. Hozten utzi, **goringo-gozoa** egin bitartean.

*Goringo gozoa:* surtan ura eta azukrearekin almibarra egin. Bestetik arrautza-gorringoak **irabi-atiu** eta pixkana-pixkana almibarra erantsi dena ondo nahasten den bitartean (batidorarekin egin daiteke). Almibarra egindako ontzira bota eta bainu marian jarri, loditu arte eraginez. Kontu handia eduki eta ez dezala irakin, krema galdu egin baitaiteke. Hozten utzi.

*Hezurak:* mazapana **oratu** eta zabaldu, glas azukrez igurtzitako taulan. 4 cm-ko tirak moztu eta laukiak egin. Zentimetroko zabalera duen zotz batekin zilindro txikiak egin eta glas azukrez hautsezatu. Zotza atera, lehortzen utzi eta zuloa gorringo-gozoz bete.

**BALTSAMATU.-** *Embalsamar. Embaumer.*  
**BAT-BATEKO HERIOTZA.-** *Muerte súbita.*  
*Mort subite.*

**BELAR-GAI USAINTSU.-** *Hierbas aromáti-cas. Herbes aromatiques.*

**ERRAI.-** *Viscera. Viscère.*

**GORRINGO-GOZO.-** *Dulce de yema. Biscuit au jaune d'oeuf.*

**HAUTSEZTATU.-** *Espolvorear. Saupoudrer.*

**IRABIATU.-** *Batir. Battre.*

**ORATU.-** *Amasar. Amasser.*

**ZIRAIA.-** *Betún. Cirage.*





**Azaroaren 21a “Telebistaren Munduko Eguna” dela eta, gurera ETBren sortze-garaian aritutako protagonistetako bat ekarri dugu: Martin Ibarbia jauna. Azalpen eta argibide ugari eman dizkigu duela hogeita bi edo hiru urte ETB nola eta zertarako sortu zen eta gaur egun nolako den ulertze aldera.**

Testua: Ritxi Lizartza



## Martin Ibarbia:

# “Beste kate eta hizkuntzekin homologatuko bagara, euskarazko fikzioa egin behar da”

**HABE.-** ETBren sortzailetako bat zaitugu, edo gutxienez ideologoetako bat. Zein kezak eraginda sortu zenuten ETB?

**Martin Ibarbia.-** Ba, ahal zen moduan jaio zen hura ere. Bazen politikoki pisuzko arrazoi bat: martxan jarri berria zen Gernikako Estatutuak euskaldunoi komunikabide propioak izateko aukera eta **ahalmena** ematen zigula. Juxtu 16. atalak, oker ez banago. Hala, Carlos Garaikoetxea lehendakari zela, Ramon Labayen Kultura sailburuak egitasmoa bultzatu nahian, lau laguneko lantalde bat osatu zuen: Juan Jose Azurza eta Eugenio Iriondo, biak komunikazio-injineruak, Josu Zubiaur, Kultura sailburuorde zena, eta ni neu, zuzendari-titulua neukana garai hartan. Sorrerako une hartan ez genekien telebista bat nola egin. Elkarri begira jarri eta “hik ba al dakik nola egiten den telebista?” “Ez, baina egin beharko diagu” esanez hasi ginen.

**HABE.-** Nondik nora hasi zineten?

**M. I.-** Politikaren alorrean Ramon Labayen eta Juan Porres aritu ziren batez ere: forma juridikoa eman behar zitzaion eta legea idatzi. Gu egitasmoa praktikara eramateko geunden. Bagenekien zein mailatako komunikabidea sortu nahi genuen. Ez, ordea, nola. Teknikoak sareaz arduratu ziren eta gune nagusia

lurretan kokatzea erabaki zen. lurretan kokatzearena ez zen izan hiriburuekiko antzeko distantzia errespetatzeagatik, baizik eta teknikoki **gunerik** aproposena zelako, Oiz mendian transmisore nagusia jar zitekeelako, alegia. Horren ostean, lehenengo eta behin TVErekin harremanetan jarri eta zentro bat diseinatzeko laguntza ere eskatu genien. Baina, ez genuen elkar ulertu.

**HABE.-** Orduan atzerrira?

**M. I.-** Bai, **atzerrira**. Studio Hamburg-ekoak aholkulari izan genituen, ez bakarrik sare eta frekuentzien baimenen kontuetan, baita telebistaren barne antolaketa kontuetan ere. Alegia, gaur egun hain arruntak zaizkigun gaitan: kamerak, errealdoreak, erredaktoreak...

**AHALMEN.-** *Facultad, capacidad.* Faculté, pouvoir, capacité.

**ARGIBIDE.-** Azalpen. *Aclaración, explicación.* Explication, information.

**ATZERRI.-** *Extranjero (país).* Pays étranger, exil.

**GUNE.-** *Localización.* Lieu, endroit.

**SORTZE-GARAI.-** Sorrera. *Inicio, origen.* Origine, genèse.



## “Txapel batekin bi buru estali dira”

**HABE.-** Laguntza eta aholkularitza horrekin hasi zen martxan Telebista. Zein ziren helburuak hasieran?

**M. I.-** Berriro diot eta askotan aipatuko dut “politikoki” hitza. Garai hartan euskararen aldeko aitzakia ipini zen. Nik uste dut, ordea, horrela esanda sinpleegia dela. Azkenean, euskaldunok komunikabide propio bat behar genuen. Eta helburu horrek dakartzkien baldintza guztiak bete behar zituen tresna bat asmatu behar genuen. Euskararen aldeko zerbait egin nahi izatera, telebistak balio zezakeen, baina beste hainbat tresnak bezala. Izan ere, Euskal Telebistak ez baitzuen euskara “salbatuko”. Bestela esanda, komunikabide euskaldunak behar genituen, gizarteari zerbitzua (ordura arte erdara soilan jasotakoa zena) eskaintzeko. Ondorioz, euskarari laguntza edo bultzada ematen zitzaiola? Jakina! Baina, kito. Mesianismo bat ere egon zen garai hartan, euskararen salbazio gisako zerbait asmatzen ari ote ginen, eta nik ez dut uste hori horrela zenik.

**HABE.-** Zuk aipatu duzun mesianismo hartaz gain, egongo zen, noski, halako tresna handi bat martxan jartzeagatik euforia puntu bat ere: euskara salbatzeko, euskal herritarrei telebista bat eskaintzeko, eta baita, era berean, ikusleak TVren menpe ez egoteko, ezta?

**M. I.-** Momentu hartan eztabaidak egon ziren. EAE elebiduna izanik, nola egin telebista euskaraz bakarrik? Ramon Labayenek alde horretatik garbi zeukan eta bere inguruan genbiltzanak ere garbi geneukan gure **ekarpenak** euskaraz behar zuela. Horrek antolaketa-arazoak ere sortu zizkigun, hala ere. Kazetari guztiak idaz-mundutik zetozen, eta irudia zutabe duen medio batera iristean, aldaketa ugari ekarri zuen eta askok ofizio berri bat ikasi zuten. Bigarren hizkuntzarena erabaki guztiz pertsonala eta politikoa izan zen neurri handi batean: Gorordo jauna izan zen hain zuzen ETB2 “asmatu” zuena. Eta “asmatu” diot zeren eta ETB2ren sorreraren helburua Bilbo aldean **isla** edukitzea izan zelako. Izan ere, ETB ez baitzegoen diseinatuta ez lurretako etxea, ez sarea, bi telebista-kate edukitzeko. Beraz, erabaki erabat politikoa izan zen eta nik uste dut oraindik ere lurretako lankideak eta gainontzeak erabaki hori nozitzen ari direla, azken finean, bi telebista-kate bat behar zuten tokian daudelako.

**HABE.-** Eta Gorordoren apustu horrek proiektua aldatu egin zuen azken batean, eta asmoa euskara eta euskaratik izanik, berez audientzia gehiago izango zuen beste kate bati pisu handiagoa eman zion. Proiektu hori aldatzeak zer eragin izan zuen, zure ustez, telebistaren martxan?

**M. I.-** Batetik disfuntzioa: leku batean egon behar zutenak bi lekutan zeudela, bi nagusiren zerbitzuan. Alemaniarrek, han-

*ETBko lehen emanaldietatik ateratako fotogramak*

burgotarrek, nobedade bat erakutsi ziguten beste telebistekin konparatuta: erredaktore batek gai izan behar zuela bere notizia editatzeko. Aurreko sisteman, TVEk zeraman sisteman, esaterako, erredaktoreek notizia egiten zuten baina irudiak beste norbaitek ipintzen zituen. Hori hautsi egin zen eta hausketa horrek buruko min ugari sortu zituen –nik uste dut ona izan dela, hala ere–. Orain, erantsiozu honi bigarren hizkuntzaren beharra, bigarren hizkuntza medio berberekin, leku berean... Azkenean ez dira bi telebista-produktu sortzen, baizik eta errepikatutako telebista-produktu bakarra. Ni ez naiz soziologoa. Baina, nik uste dut produktu-aldeak antzeman dela txapela batekin bi buru **estaltzen** ari garela. Eta autonomia puntu hori, freskura puntu hori nik uste galdu egin dela momentu askotan ETB1en zein ETB2n arrazoi horregatik.

Eta bigarrenik, fokalizazioa, jakina. Egunero egin behar da telebista, eta telebista egitea oso zaila da, bai ikuspegi periodistotik bai entretenigarria den neurrian. Telebista egiteko dirua eta denbora behar da, pertsona egokiak behar dira, metodologia behar da, eta talentua behar da. Eta presa, buru gutxi, azkartasunaren poderioz eta bi buru estali beharrak eraginda, kalitatearen problema ekarri zion telebistari, eta gaur egun ere uste dut irauten duela kalitate-arazo horrek.



**"Vaya semanita" ikusten dut, iruditzen zaidalako programa on eta eder bat dela, euskal sena duena nahiz gaztelaniaz jardun. Eta hori inportantea da.**

**HABE.-** Hogei urteko historia honetan, errepikapenak errepikapen, produktu desberdinak eskaintzen dira kate batean eta bestean eta espezializazio batera jo da. Gaur egun ETBk betetzen duen esparruarekin ados zaude? Hasieran planteatzen ziren helburuak betetzen ditu ETB1ek? Ematen zaion garrantzia, bai aurrekontu nahiz kontzeptu-aldetik, hasiera hartan aurreikusten zen modukoa da?

**M. I.-** Beno, hasiera hartan ez pentsa gehiegi pentsatzen zenik. Egin egin behar zen. Beraz, alde aurretiko lehen estudio bat non garbi geratzen zen zer, nola eta zenbat denboran egin behar ziren gauzak... Hori ez zegoen, borondatea zegoen. Ez dut uste inork esan dezakeenik, aspektu politikotik aparte, gauzak argi zeudenik. Eta egia da, ofizioa ere martxan ikasten da, ez pentsa fakultatetik pasata ikasten denik. Fakultatetik asko pasatu dira eta gure eskuetara etorri dira ezer jakin gabe. Beraz, badago ofizio honetan egunero ikasten den zerbait eta profesionaltasunera iristen da: pertsona bat profesional izatera iritsi egiten da, ez dator profesional. Beraz, alde horretatik eboluzio bat izan da, dudarik gabe. Gaurko telebista diozu. Nahiz eta ETB2 apenas ikusten dudana, "Vaya semanita" ikusten dut, iruditzen zaidalako programa on eta eder bat dela, euskal **sena** duena nahiz gaztelaniaz jardun. Eta hori inportantea da. "Sena" da hitza, zenbait produktuk, nahiz eta euskaraz egin, ez baitute senik edo auskalo nongo sena duten. Baina, galderari erantzunez, nire iritziz, asko eskatzen zaio ETB1i. Beharbada, euskaldunon exijentzia handiagoa delako beste hizkuntzatan egiten denarekin konparatuta, beti bizi garelako euskaldunok halako Damoklesen ezpata baten azpian bezala: Euskarak iraungo al du? Salbatuko al da euskara? Euskara gauza al da adierazteko hau ala beste? Eta horrek angustiarra eramaten gaitu, isla politikoa ere baduena eta gure gain-gainean dagoena. Hala ere, ETB1ek konplitu egin behar du, beste edozein hizkuntzarako telebistek egiten duten bezala: informatu (oso inportantea), informazioa baita edozein telebista-kateren arima, eta, ostean, entretenitu. Eta entretenitzeko bideak asmatu egin behar dira. Lehentxeago helburuak aipatu dizkidazu eta euskararen garapena eta euskararen "salbazioa" z jardun dugu. Nik oraindik ETB1en faltan botatzen dut –indarririk ez daukalako, dirurik ez daukalako, auskalo zergatik– euskarazko fikzioa. Baten batek berehala erantzungo dit "Goenkale hor zegok!" Bai, hala da. *Goenkalek* bere tokia

dauka, egundoko lana egin du *Goenkalek*, baina iristen den tokiraino iristen da eta zerbait gehiago egin behar da, eta beldurrik gabe esaten dut, maila handiagokoak, gainera. Horrek bai emango liokeela euskarari eta euskal gizarteari egundoko "tornua"!

**HABE.-** Horrek esan nahi du gehiago inbertitu behar dela euskaraz eta ETB1en eta ETB2n inbertitzen dena **orekatu** egin behar dela.

**M. I.-** ETBkoek diote diru gehiago gastatzen dutela ETB1en ETB2n baino. ETB2n dauden produktuak, batetik zaborraren inguruko batzuk –barkatuko didate hori horrela esatea baina–, eta bestetik, pelikulak eta horrelakoak. Produktu horietatik dira, hain zuzen, merkeenak. Garestiena, ordea, produkzio propioa. Eta ETB1en produkzio propioa egon badago. Arazoa da ETB1en egiten den produkzio hori nola eginda dagoen. Oraindik ere kalitatearen kontzeptua bera, profesionaltasuna, helburu garbiak, profesioaren berezko arauak errespetatzea... Badago zer egina...

**HABE.-** Aurrera begira, zuk esan duzun bezala, ETB1en **erronketako** bat, behintzat, benetako fikzioa egitea da. Zer gehiago egingo zenuke daukazu esperientziarekin eta orain 20 urte zenuena ikusita, gaur egun ETB sortu beharko bazenu edo dagoena erabili beharko bazenu, zer eskatuko zenioke?

**M. I.-** Jainkoak libra nazala erabiltze horretatik. Ez... Nik egundoko errespetua diet hor jarduten dutenei eta erabakiak egunero hartzen dituztenei, zeren, lehen esan dizut: oso-oso zaila da telebista egitea eta programazio orekatu bat edukitzea, gizartearen esparru guztiak beteko dituen eskaintzea. Oso zaila da. Nik, hala ere, ETB1en gauza bat azpimarratuko nuke: azken urteetan informatiboetan Jaime Otamendiren eskutik etorri den eboluzio bat sumatu da –ez dut problemarik esateko–. Irteera eman zaie, kanpoko ordezkariekin, korrespondentekin edo daudenekin, kanpora joan eta handik egin telebista... Nik uste dut irteera hauek Euskal Telebistari halako presentzia inportantea eman diotela, behar den tokian, hau da, notizia dagoen tokian telebista egiteak. Beraz, **ausartu** egin gara horrekin eta kazetariak erantzun egin dute. Aurrerapauso ikaragarria da. Orain dela 20 urte pentsaezina zen ez bakarrik Afganistanera kazetari bat bidaltzea, baizik eta hori egiteko gauza izango zena aurkitzea. Gaur egun hori irabazita dago. Eta bigarrena, berriro esango dizut, fikzioa, era guztietakoa. Badakit garestia dela, baina beste kate eta hizkuntzekin homologatuko bagara, euskarazko fikzioa egin behar da. Hori da erronka nagusia. "Haurrak hor daude", baten batek esango luke, "haurren programazioa meioratu behar da". Beno, ez naiz ni sartuko horretan, zeren bai euskaraz eta bai ingelesez ere segur aski zer meioratua egongo da. Baina hori beste kontu bat da. ■

**AHOLKULARITZA.-** Consejo, asesoramiento. Conseil, assessorat.

**AUSARTU.-** Atrebitu. *Atreverse.* Oser, se risquer à.

**EKARPEN.-** Aportación. Apport, contribution.


**ERRONKA.-** Desafío, reto. Défi.

**ESTALI.-** Tapar, cubrir. Couvrir.

**ISLA.-** Reflejo, presencia. Reflet.

**OREKATU.-** Equilibrar. Équilibrer.

**SEN.-** Instinto, intuición, habilidad. Instinct, intuition.



# Gaurgero



## Bizi-testamentua, duintasunez hil nahi dutenentzat



Argi dago inork ez duela **luzaroan** sufriz hil nahi izaten. Horregatik urteak aurrera doazenean, nola hil nahi dugun hasten gara pentsatzen eta gure bizitzako azken unean erietxean gurekin nola jokatzeari nahi dugun hausnartzeko. Pentsamendu horiek idatzita eta sinatuta utzi ditzakegu dokumentu batean, **bizi-testamentuan**. Dokumentu hori nola egin daitekeen araututa dago: Nafarroan 2002ko maiatzaren 6an arautu zuten, EAEn urte bereko abenduaren 12an. Arauok lege izaera dute, eta osasun arloko **aurretiazko borondateak hartzen dira** aintzat.

**E**rietxe askotan, Iruñeko Nafarroako Ospitalean barne, Comité Asistencial de Etica (CAE) delakoak daude. Erietxe horretako zainketarako etika-komite horretako buru da Koldo Martínez Urionabarrenetxea sendagilea, eta erietxe bereko hainbat langile daude komite horretan, apaiza barne. Komiteak gaixoaren bizitzako azken unean **eramangarriago** egiten saiatzen da, mina **arintzen**, eta adibidez, horrelako gaiak eztabaidatzen ditu. Gaixoa **bere kabuz** jateko gauza ez denean, jaten ematea, hori tratamendua da ala terapia behartzea da? Komite horrek aholkuak ematen ditu: "Komiteak ez du ezer erabakitzen, eta gaixoak edo familiak nahi duenean bilitzen da".

Bioetikako master europarra duen lehen medikua da Euskara Kultur Elkargoko lehendakari-orde den Koldo Martínez. Belgikako Lovainako Unibertsitatean lortu zuen masterra.

Berak esana da: "Ados nago medikuak behartzen bagaituzte bizi-testamentuak dioena betetzera. Arazoa zera da, bizi-testamentua ondo idatzi behar dela. Gehiegi zehazten baduzu, zer egin behar duzu zehaztu gabeko egoeraren bat suertatzen bada? eta orokorregi idazten baduzu, adibidez, *ondo zaindua* izan nahi duzula badiuzu, zer da ondo zaintzea horrelako egoera batean, gaitza sendaezina dela dakizunean? Askotan bizi-testamentuak interpretatu egin behar izaten dira. Eta legeak dio behartuta gaudela bizi-testamentua betetzera, baina familiak bizi-testamentuak dioena ez badu bete nahi, nik nahiago dut familiarekin hitz egin, eta saiatu konbentzitzen gaixoaren nahia bete egin behar dela. Hala ere, uste dut familia eta medikuen artean adostasunik ez bada, legeak babestu egiten duela medikua" esan digu Koldo Martinezek.

Bizi-testamentua, besteak beste, notario baten aurrean sina liteke.

Halaxe egin du esaterako Francisco Javier Aranburuk. Espainiako *Documento para la Muerte Digna* (DMD) elkarteko kide da Aranburu jauna. Donostian ere badu elkarte honek bere egoitza (posta elektronikoa: [dmd-dhe@terra.es](mailto:dmd-dhe@terra.es)). Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak ere badu **hiru orriko** bat "aurretiazko borondateen dokumentua" hizpide duena, bizi-testamentua, esan bezala.

Bizi-testamenturik ezin da 18 urte izan arte egin, pertsonak adin nagusikoa izan behar du, beraz. Eta bere buruaren jabe izan behar du. Hau da, agiria sinatzen duenak ez du epairik izan behar bere kontra, bere buruaren jabe ez dela esaten duen epairik. Eta askatasun osoz egin behar du, inork behartu gabe, alegia. Gaixoa dagoen erietxean aurkeztu behar du agiria gaixoak berak, edo honen familiak, edo gaixoaren ordezkariak. EAeko legeak dio bizi-testamentuen





**M**ario Sanz Gómez Bergarakoa da, 67 urte ditu, eta **kristautzat** dauka bere burua. Etxean harrapatu dugu telefonoz deitu diogunean, mugitu ezinda. Besoa eta aldaka apurtu berri ditu, eta orain sendatzen ari da. Kataluniako aldizkari batean izan zuen lehendabizikoz bizi-testamentuaren berri. Berehala erabaki zuen dokumentua egitea: "**Duintasunez** hil nahi dut, inor molestatu gabe. Horixe da niretzat duintasunez hiltzea" esan digu.

Testamentu-mota hori orain dela 5 urte egin zuen, legeen aurretik: "Bizi-testamentua egin nuenean ez nengoen gaixo. Familiarekin hitz egin nuen, seme-alabekin, emaztearekin, eta denak ados daude" azaldu digu.

Gauzak argi dauzka Mario Sanzek: "Azken boladan **ebakuntza** bat baino gehiago egin didate. Erretzailea izan naiz, eta besteak beste, biriketarik operatu naute. Orain ez dut erretzen, baina gauza bat argi daukat. Operatu aurretik bizi-testamentua erakutsi nien medikuei, eta ez zidaten inolako **oztoporik** jarri. Jarri izan balidate, bane-kien zer egin, beste mediku batzuk aurkitu. Oso

gogorra da maite dituzunak sufritzen ikustea, ama adibidez. Ama gaixoaldi luze baten ondoren hil zitzaigun, eta **latza** izan zen horrela hiltzen ikustea. Hiltzeko orduan ez dut erietxeetako **hoditzarrez** inguratuta hil nahi. Beste kontu bat eutanasia aktiboa da, nik ez dut eutanasia hori nahi, hori suizidatzea bezala da. Nik nahi dudana hauxe da, ez nazatela alferrik sufriarazten utzi". Bestela esanda, ez dezatela bizi-terapia **kru-delak** erabiliz.

Eta beretzat nahi duena besteentzat ere nahi du bergararrak: "Horregatik Deba Garaiko udal-txe guztiak bisitatu nituen, eta udal erregistroak sortzeko eskatu". Gasteizeko udalean sortu zuten bere garaian, baina gaur egun gai hori Eusko Jaurlaritzak darama. Eta dakiguna zera da, Bergaran behintzat ez dagoela oraindik horrelako udal erregistrorik. Nafarroan bai, badago erregistro bateratu bat: "Legeak agintzen du erregistroak egitea, baina zuk bizi-testamentua Benidorm hirian aurkezten baduzu, eta esaterako, Durangokoa bazara, nola jartzen da mediku hura harremanetan betiko zure medikuarekin? Informatikaren aldetik lan handia eskatzen du horrek, horregatik pixkanaka doaz erregistroak" esan digu Koldo Martinezek.

udal erregistrorik balego, bertan aurkezteko modua ere badagoela.

Eta zertarako behar da ordezkaria? Bada, gaixoaren eta medikuaren edo mediku-taldearen arteko **bitartekari-tzarako**. Izan ere, aurretiazko borondate horiek osasun arlokoak dira gehienak. Ez bakarrik **hil-aurreko eginbeharrak**, ondorengo batzuk ere sartzen dira, adibidez, organo-**emaile** bagara, edo gure gorpua zientziaren esku utzi nahi badugu. Dena den, bizi-testamentuak ere legea errespeta-tu

behar du. Sinatzen duenak ezin du adierazi eutanasia aktiboa nahi duela, legez kanpokoa delako hiltzeko era hori.

Jakina, borondate hauek betetzen dituzten osasun arloko langileak -medikuak, erizainak...- horiek ere

ezin dira ordezkari izan. Osasun-arlokoak ez diren erabakiak ere ezartzen ditu bizi-testamentuak. Adibidez, nola lurperatuak izatea nahi dugun.

Bizi-testamentua edozein unetan alda daiteke, ordezkatu edo **ezeztatu**. ■

**ARINDU**.- *Paliar*. Pallier.  
**AURRETIAZKO**.- *Anterior*.  
 Antérieur/e.  
**BERE KABUZ**.- *Por sí mismo/a*. Par soi-même.  
**BITARTEKARITZA**.- *Intermediación*.  
 Médiation.  
**BIZI-TESTAMENTU**. Testamento vital. Testament de vie.  
**DUINTASUN**.- *Dignidad*. Dignité.  
**EBAKUNTZA**.- *Operación*.  
 Opération.  
**EGINBEHAR**.- *Quehacer*. Affaire.  
**EMAILE**.- *Donante*. Donneur/euse.  
**ERAMANGARRI**.- *Llevadero/a*.  
 Supportable.

**EZEZTATU**.- *Revocar*. Révoquer.  
**HIL AURREKO**.- *Anterior al fallecimiento*. Avant mourir.  
**HIRU ORRIKO**.- *Tríptico*. Triptyque.  
**HODITZAR**.- *Tube grande (despectivo)*. Tubes maudits.  
**KRISTAU**.- *Cristiano/a*.  
 Chrétien/enne.  
**KRUDEL**.- *Encarnizado/a*. Acharné/e.  
**LATZ**.- *Gogorra*. Terrible. Terrible.  
**LUZAROAN**.- *Largamente*.  
 Longuement.  
**OZTOPO**.- *Impedimento*.  
 Empêchement.





# IZURUNGOAK,


## 2. hizkuntza-eskakizunerako langaiak



Azken hilabeteetan HABEk materialgintza-alorrean egindako lanak aurkeztu dizkizuegu: *Aisa*, etorkinek euskara ikasteko materiala, *Osatuz*, erizain eta medikuak euskaraz aritzeko atera berria den materiala... Oraingon, berriz, IZURUNGOAK izenekoa dakarkizuegu, herri-administrazioiko langileak, taldean eta irakaslearen laguntzarekin euskara lantzen aritzeko modukoa.

I ZURUNGOAK herri-administrazioen arloan euskararen erabilera areagotzeko langaiak dira. Herri-administrazioetan lanean  **jardun** eta 2. hizkuntza-eskakizuna lortzeko bidean daudenei zuzendua dago, taldean, beraien eguneroko eginkizunak landuz, euskara ikasten eta lantzen lagun diezaien.

1992an eta 1994an HABEk argitaratutako materiala du oinarri. Material hura eguneratu,  **gaurkotu** eta egokitu egin da, urteotako klaseetako esperientzia abiapuntu hartuta. Orduan bezalaxe, herri-administrazioaren baitan maiz izaten diren jarduerak hartu dira gogoan.



### Planteamendu metodologikoa

Ikaskuntza bideratzeko,  **atazetan** oinarritutako ereduari jarraitzen zaio. Ataza horietan ikasleak lanean egin ohi dituen antzeko jarduerak aurkituko ditu. Horrekin batera, komunikazioa zuzena izan dadin, ikasleak behar dituen hizkuntza baliabideak eta trebetasunak eskuratzeko metodologia eskaintzen da.





## Materialaren edukia


Hainbat gai arrunt jorratzen dira ikastunitateetan (Etxebizitza, Zahartzarora, Zaborrak, Zirkulazioa eta Udal merkatuak), baina herri-administrazioko langileen ikuspuntutik begiratuta, ikaslearen hizkuntza-mailari eta lan-beharrei egokituta. Ikastunitate bakoitza eskolako 12-15 ordutan lantzeko osatua dago. **Ikasleak, irakaslearen gidaritzapean eta ikaskideekin elkarreraginean**, ikastunitatearen helburuak lortzearen, lau trebetasun komunikatiboak erabiltzera bultzatuko dituen jarduerak didaktikoak burutuko ditu.

Urteotako klaseetako **eskarmentuaren** ondorioz, materiala txukundu, osatu, aberastu eta gaurkotu egin nahi izan da, baina hasierako bideo-grabaketak bide-eramaile mantenduz. Grabaketok **berariaz** egindako gidoietan dute sorburua, eta administrazioeko egoera errealeak islatzea dute **xede**. Bideoa, beraz, oinarri da, eta ez osagarri. Horiekin batera, beste hainbat grabaketa ere **paratu** dira, ikas-prozesuaren akuilagarri eta aberasgarri.

**Ikaslearen liburuan** ikaskuntza bideratzeko gaiak, egoerak eta jarduerak daude: ikus-entzunezkoak ulertzeko laguntzak, hiztegi berezia, irakurgaiak, galdetegiak, mintzagaia sorrarazteko euskarriak, hizkuntza hobetzeko oharrak, autoebaluazio-orriak...

**Irakaslearen liburuan** langaiak egoki erabiltzeko irizpide orokorrak daude: nola antolatu atazak, jarduerak abiarazteko oharrak, zuzenketak, ikus-entzunezkoen transkripzioak, argazkiak, fitxak... Irakaslearentzako material hauek HABEren web gunean bakarrik daude eskuragarri ([www.irakaslea.habe.org](http://www.irakaslea.habe.org)).

Ikus-entzunezkoetan hiru bideo-kasete daude: 1-2. ikastunitateak, 3-4. ikastunitateak eta 5. ikastunitatea. Berariazko grabaketez gain, irratitik hartutako beste hainbatez osatuta daude. ■



**ATAZA.-** Tarea. Travail.

**BERARIAZ.-** Expresamente. Expressément.

**ESKARMENTU.-** Experiencia. Expérience.

**GAURKOTU.-** Actualizar. Actualiser.

**JARDUN.-** Aritu. Estar haciendo algo. Faire.

**PARATU.-** Prestatu. Elaborar. Préparer.

**XEDE.-** Helburu. Objetivo. Objectif.



## Adibide bat

Materialaren berri zuzenagoa izan dezazuen, bertatik ateratako ariketa bat ekarri dugu tarte honetara, egin dezazuen.

2. Ikastunitateak zahartzarora du gai nagusi eta 64. orrialdean zahartzarorekin lotutako esaera zaharrak lantzeko ariketa bat aurkitu dugu.



### ESAERA ZAHARREK GEZURRIK EZ

Asko dira zahartzarolari lotutako esaera zaharrak. Lotuko al zenituzke adierazpen egokiarekin?

- |  |       |
|--|-------|
| 1. ZAHAR HITZ, ZUHUR HITZ                  | ..... |
| 2. IKASI DU ZAHARRAK, ERAKUTSITA BEHARRAK  | ..... |
| 3. BALEKI GAZTEAK, BALEZA ZAHARRAK         | ..... |
| 4. AGURE ONARI EZ ATEAK ITXI               | ..... |
| 5. ASTO ZAHARRA MUKIZU, MALIZI ASKO DAKIZU | ..... |
| 6. JAIKAK, HILTZEA ZOR                     | ..... |
| 7. ZUHAITZA ZAHARRAGO, ZUZENTZEN ZAILAGO   | ..... |
| 8. ONTZI ZAHARRAK, ZULO ASKO               | ..... |

- A) Bizi izanak irakatsi dio zaharrari.  
 B) Edadetuei begirunea zor diegu.  
 C) Heriotza biziaren parte saihestezina da, ezin ihes egin beragandik.  
 D) Gazteak ez du zaharraren jakinduria, ezta honek gaztearen indarra ere.  
 E) Urteekin zaharminak ugaritu egiten dira.  
 F) Urteak aurrera joan ahala, gaiztakeria asko ere ikasten da.  
 G) Edadetuen hitzak irakaspen izan ohi dira.  
 H) Urteekin zailago suertatzen da aldatzea.

Zalantzarik sortu bazaizu, 45. orrialdera jo.



## Lagunartean ere, euskaraz

Gazteekin zerikusia duen sail honetarako, *Lagunarteko Hizkerarekin Jolasean* (LHJ) izena duen programa aukeratu dugu, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuko Euskara Zerbitzuak sortutakoa, hain zuzen ere. Egitasmo hau Lasarte-Oriako Ttakun Kultur Elkarteak eta Urtxintxa Eskolak elkarlanean garatzen dute gazteen artean eta lagunarteko egoeretan euskara erabil dadin.



Dirudenez, euskara gehien erabiltzen den herrietan ere, gazteek lagunarteko erregistroa gaztelaniatik hartzeko joera dute, nahiz eta euskarak erregistro hori izan baduen eta beraiek esamolde berriak sortzeko gai izan badiren. Erabilera hori askoz nabarmenagoa da euskararen presentzia horren nabarmena ez den lekuetan. Gazte askok ez diote bizitasunik topatzen euskarari, ez dute hizkuntzarekin jolastea lortzen eta, beraz, ez dute euskara egoera ez-formaletan erabiltzen. Hizkuntza nagusia gaztelania da: “*De qué vas pringau?*”, edo zerbait gustukoa dutela adierazteko “*Qué guay!*” edo “*mola!*” moduko esaldiak hitzetik hortzera erabiltzen dituzte.

Bestalde, lagunarteko erregistro hori baitaratzeko, ingurune hurbila eta familia dira esparrurik garrantzitsuenak. Gazte horietako batzuk gurasoengandik honelako hitz goxoak jasoko dituzte: “*kuttuna*”, “*lantzana*”, “*poxpolina*”... baina, kontuan hartzen badugu, hainbat gazteren ingurunea nahiko erdalduna dela eta gehiago baten kasuan gaztelaniak indar handiagoa duela, transmisio horrek huts egiten du neurri handi batean.

Gai beraren inguruan hainbat lan eta egitasmo abiarazi dira azken urteetan: Ikastolen Elkarteak Ahozkotasanari buruz egindakoa, Kike Amonarrizek, Asisko Urmenetak eta Antton Olariagak eskainitako hitzaldi eta argitalpenak (Mantxut, Frexkue...) eta Bertsozale Elkarteak (Andoni Egañak eta Joxerra Gartziak) egindako lanak, besteak beste.

Eskaintza hau urtez urte handitzen ari da, horrela, 2001. urtean *Hitzontzia liburuxoa* besterik ez bazen ere, 2002. urtean *Kuxkuxeroa* txata sortu zuten, eta 2003. urtean beste txat bat gehitzeaz gain (*Txutxu muxuka txat gaztea*) *Hitzontzia* sarean jarri zuten. 2004an, berriz, beste hainbat jarduera osagarri berri prestatzen ari dira.

**Hitzontzia sarean:** [www.aisia.net](http://www.aisia.net) web orrian adar jotze, ligatze, haserretze, sentimendu eta beste hainbat gairen inguruko esamoldeak biltzen dira.

**Kuxkuxeroa:** txat honen helburua, gazte hizkera lantzeko asmoz saioetan landu diren esamoldeak erabiltzen jarraitzeko aukera ematea da. Bertan hainbat herritako gaztetxoek elkarrizketak euskaraz izateko aukera dute, moderatzaile batek zirikatzeko dituela.

**Txutxu-Muxuka txat gaztea:** *Kuxkuxeroa*ekin batera euskarazko txat-gune ez moderatuaren zerbitzua eskaintzen dute. ■



Zeu ere lagunartean nola moldatzen zaren jakiteko, saia zaitez hurrengo hitz eta molde hauek euskaratzen:

1. Estar al loro/ être au parfum:

.....

2. Hacer mimos/faire câlins:

.....

3. Ligar/draguer:

.....

4. Darse el lote / se bécoter

.....

*Gure proposamena 45. orrialdean*

## HERIOTZAK HIRU LEGE

-Heriotzak hiru lege ditu.

-Lehena?

-Heriotzak ez du bereizten:  
pobrea eta aberatsa,  
haurra eta agurea,  
arra eta emea,  
denak ditu eramaten.

-Bigarrena?

-Atzo hura,  
gaur hori,  
bihar ni,  
ez da libratzen denik.


-Hirugarrena?

-Bihar hilko,  
etzi ehortziko,  
etxidamu guztiek ahantziko.

Andu Lertxundi,  
*Aizak eta aizan elkarrekin dantzan*

[ i ] [ nteresgunea

352  
FADE  
15



# Oroit hadi herioaz

[ T ] [ HERIOTZA ] HIRU LEGE DITU



Oren guztiek dute gizona kolpatzen.  
Azkenekoak du hobira igortzen.  
(Sarako eliz-dorreen izkiribatua)



**Betidanik bizi izan da gizakia heriotzaz kezkatu-  
rik. Ulergaitz zaio zentzuzko zerbait izatetik ezere-  
zera suntsitu beharra, ulergaitz bizitza beraren arrazoia.**

**Aldian, aldiz, aurkitu du nolabaiteko arrazoia zirudiena.  
Hala ere, zalantza du, hil beharra muga ala pizkunderako  
urratsa ez ote den. Baina, mendeetan zehar, behin eta  
berriz, galdezka jarraituko du gizakiak, erantzunaren bila,  
nahiz eta jakin erantzun ziurrik nekez aurki lezakeela.**

**G**alderak galdera, hiltzeko unean giza-  
kia milaka urtetan bere heriotzaren  
eta honen inguruko gorabehera guztien  
jaun eta jabe izan da. Lehenik eta behin,  
gauza normaltzat hartzen zen pertsona  
hil egingo zela jakitea. Hil zorian zegoe-  
nari ez zitzaion bere heriotza ezkututzen.  
Gainera, heriotza-unean berak izan behar  
zuen nagusi. Jendaurrean jaiotzen zenez  
gero, hil ere jendaurrean egin behar zen.  
Heriotza hurbil zenean, gaixoaren gela  
leku publiko eta ohituraren arabera  
heriotza erritozko zeremonia bihurtzen  
zen. Apaizak bere lekua zuen, baina beste  
**partaideen** artean, izan ere zeregin  
nagusia **hiltzorian** zegoenaren esku bai-  
tzegoen: agur egin, barkamena eskatu  
eta bedeinkatu.

Heriotzako ordua heltzen zenean,  
erritua Herioren zain etzanda egotea zen.  
XIII. mendeko liturgistek diotenez, "aur-  
pegiak beti zerura begira dezan ahoz  
gora etzanda" egon behar du. Juduen-  
tzat, ordea, Itun Zaharraren arabera hor-  
mari begira hiltzea komeni da. Euskal  
Herrian bakean hiltzen direnak salbatu  
egiten direla uste du herriak, baina ago-  
nia zaila dutenak edo hildakoan itxural-  
datzen direnak kondenatu egiten direla-  
ko ustea ere badago. Hau guztia XIX.  
mendera arteko ohitura izan da gure  
artean.

Gaur egun, ordea, hiltzorian dagoena-  
ri bere egoera ezkutatu behar zaiola uste  
da. Zenbat aldiz entzun ote diogu senar,  
emazte edo guraso bati "gutxienez hil-  
tzen ari zela ohartu gabe joan da eta  
horrek ematen dit poz bakarra".

Oraingo iritzien arabera, senideen eta  
medikuaren egin beharra oso gaixo  
dagoenari bere egoera disimulatzea da.  
Salbuespen bereziren bat izan ezik, gai-  
xoak ez du jakin behar azken ordua gertu  
duenik. Usadio berriak azken hatsa hil  
egingo dela jakin gabe ematea eskatzen  
du, baina hori ez da **inozo-inozo** ohitu-  
retan sartu. Bakarren batzuek uste dute  
arau moral ez ote den bilakatu. Mediku  
batek hala dio: "Gaixoari gezurra esan  
behar zaio? Ni egiaren kontra nago egon  
ere... Niretzat beste guztiak baino lege  
garrantzitsuagorik bada: maitasunarena  
eta karitatearena".

Hirietan izan dira aldaketarik nabar-  
menenak. Jendea hirietako anonimatuan  
nahastu da, familietan jarraipenik ez  
dago (**belaunaldi** desberdinak batera  
bizi ez direlako) eta batezbesteko bizial-  
dia gainera asko luzatu da. Ondorioz,  
hiltzear dagoenaren ohe inguruan fami-  
liako kideak eta lagunak biltzea **zahar-  
kitutako** irudia da. Izan ere, hirietan  
heriotzaz ez gara ohartu ere egiten eta  
ezkutatzeko joera dago. Herrietan berriz,  
ia gaur arte mantendu diren usadio eta  
erritoez adierazi den gertaera izan da.

Azken hamarkadetan gero eta gehia-  
go dira ospitaletan hiltzen direnak.  
Medikuntzak gizartean lortu duen  
garrantziaren seinale dela diote askok.  
Nolanahi ere, gaur egun hirietan hiltz-  
orian dauden gehienak ospitalean hiltzen  
dira, nahiz eta horrek ondorio asko izan:  
terapeutika gogorra, bizi-iraupenerako  
aparailu mekanikoak, eutanasiaren ezta-  
baida... Zenbat aldiz entzun dute medi-  
kuen ahoetatik "ez da ezer, egon lasai..."  
bai familiakoek eta bai gaixoak berak ere.  
Honelakoak, medikuntza eta etikaren  
**alorreko** kezka nagusiak bihurtzeraino  
iritsi dira. ■

**ALOR.-** Esparru. *Campo.* Secteur, domaine.

**BELAUNALDI.-** *Generación.* Génération.

**EZEREZ.-** *Nada.* Insignifiance.

**HERIO.-** Heriotza, ekintzaren egile denean. *Muerte.* Mort.


**HERIOTZA.-** *Muerte.* Mort, décès.

**HILTZORIAN EGON.-** *Estar a punto de morir, moribundo/a.* Être mourant.

**INOZO-INOZO.-** *Inocentemente.* Innocemment.

**PARTAIDE.-** *Participante.* Participant/e.

**ZAHARKITUTA.-** *Antiguo/a, viejo/a, pasado de moda.* Démodé/e.







## Joandakoan idatzita uzten duguna

Epitafioak edo hiltartzak hilarri edo hilerri-sarreran ipintzen diren esaldi "esanguratsu"ak dira. Inoiz irakurriko zenituen tankera horietakoak, noski. Bitxia delako, umoretsua edota oso hunkigarria iruditu zaizulako, ba al duzu bakarren bat gogoan?



**K**omeni da, komeni ere, hiltartza egokia kaldez aurretik prestatuta edukitzea. Eta mundu honetan -bestean ez dakigu- hamaika ikusteko gaudenez, hiltartzak idatzi eta aurrebista bat edukitzeko modua eskaintzen duen web orria dagoeneko martxan jarri dute: <http://www.jjchandler.com/tombstone/> atarian *hiltartzak sortzeko aukera dibertigarria* ageri duena. Bertan adibide bat duzu ikusgai. Baina, zuk zeurea sortu nahi izatera, bete bost kutxa horiek, bakoitzarekin lerro bat osatuko duzu. Gustura geratuz gero, gordetzeko aukera ere ematen dizu, behar denerako...

Adibide ugari daude, bai hilerrietan eta baita liburuetan ere idatzirik. Azkenetako bat Bernardo Atxagaren **Soinujolearen semea** liburuan ageri dena izango da: *"Ez zen inoiz paradisutik hurbilago egon rantxo honetan pasatako denboran baino"*.

Angiozarko hilerriaren sarreran, Bergaran, epitafio bat dago, harrigarria benetan. Ezker atean jartzen du *"Il nintzen"* eta eskuinekoan, *"eta bizi naiz"*.

Ez da erraza epitafio esanguratsu eta bikain bat idaztea. Ezer gogoratzen ez bazazu, ereduak emate aldera, Mikel Aramendik *Ostiela!* aldizkarian argitaratu zuen artikulua izugarri interesgarria iruditu zaigunez, hona ekartzea otu zaigu. Gainera, epitafioei buruzko hainbat iritzi ere azaltzen ditu egileak. Ea zuri zer iruditzen zaizun! ■

## Epitafioak bizirik geratutakoentzat dira

**H**ildakoei ez baina bizidunei diegu, **edukitzez gerotan, beldurra**. "Hildakoei ez, bizidunei! bizidunei!". Horixe esan izan dugu askotan. Hildakoentzat ez baina bizidunentzat egiten direla hileta-elizkizunak eta gaineratiko funtzio guztiak. Hori ere egia da, asko eta askotan. Orain bai, Santu Guztien Eguna edo Domu-santu Eguna pasa zaigularik, denak du bere buelta ere... eta ez da gezurra, nolabait, hildakoek ere hitz egiten dutela. Eta bestela entzun zer esan zuen **Hitchcock** zinegile famatuak, Donostiara etorri Zine Jaialdira eta Polloeko hilerrira bisitatzan ari zela. Apunteak hartuz ari zen eta "Hildakoei zer bait esaten al dute?" galdetu ziotenean: "Hildakoei, isiltasunean eta adi bazaude, gauza asko esaten dituzte", edo holakoa erantzun zuen.

Egia da hildakoek gauza asko diotela. Batez ere kanposantuetako atari eta barruetan serioski miatzen baldin bada: "*Zauden lekuan egon nintzen, nagoen tokian egongo zara*", adib. Polloeko sarrerako frontisean, "*Laister esango da zuegatik, esaten oi dana orain gu gatik: -ill ziran!!*" dio euskara garbian (Joandako mendean idatzia izan arren, Erdi Aroko "*Itel como tu es itel fui*" hura gogorazten du).

Barruan, berriz, aurreko mendeko olerkarien aipuak. Arzak eta beren garaikoenak: "*Ilitzeko jai ziran, jaiotzeko il ziran*", eta gisakoak. Piraten sinboloa ere, kaskezur eta hezur gurutzatuak, ikusi izan dugu hilobiren batean. Tolosako zimitorioan ere bazen harlanduzko inskripzio bat, dotorea, orain gogoratzen ez banaiz ere zer zioen (irakurleren bat animatzen bada, dei diezagula esanez zer dioen han). Gaintzakoan "*Gaur ni, bihar zu*" jartzen du, eta hala-moduzko beste batzuk ere ezagun ditut. Badaude tetrikoagoak ere; ez dakigu, baina hildakoek jarriko ez zituztenak, seguraski: "*Hemen daude gure hezurak, itxaroten zuenak*". Toma umore beltza!

### Epitafioetan denetarik kausi dezakegu:

- Amaginarreba hil zaio eta napar segapoto edo astapetro batek ipini zuena: "*RIP, RIP, HURRA!!!*"
- Umetxoa hil zaie eta guraso atsekabetuek jarri ziotena: "*Rosi, zein goiz hasi zinen guri disgustoak ematen!*"
- "*Heman datza Joao Pinto, bidoi batean gasoila ba ote zegoen ikustera joan zena, poxpoloa piztu eta ba omen zegoen*".
- Irudizko propaganda egiteko ere usu erabiltzen dira. Inork ez beste hark baino gehiago: Hemen datza halako eta holako, bere senarrak (marmolegilea, halako etxekoa, S.A.)

- Hilerrri batean: "*Bere seme-alaba atsekabetuak, Miren, Aitor, Jon; Mikel ezik, hark ez baitzuen ezer eman*".
- Beste batean: "*Hil zarela diote. Gezurra!: zu eta zure soinua aidean zaudete*".

Pertsonaia xebebreren batek bere andrea zenaren hilobiaren gainean haren fotoa jarri zuen eta gero berea, propioa, ahaidetik ez baitzuen, eta enterradoreek ez ziotenez jarriko, bada berak jarri. Hilobia hutsik, baina bera «de cuerpo presente».

Banitatea eta harrokeria, erakuseria ugari bai, baina errebindikazioa eta mezua ez da urri epitafio askotan:

- Groutxo Marx batek, "*Barkatu altxatzen ez banaiz*" agindu zuen jartzeko bere tonban. Ironia hori oso propioa zuen.
- Miranderen epitafioa, *Ostiela!* 7.ean zetorrena: "*Hemen datza Jon Chaho Mirande, ezer ez zen, ez euskaltzain ere*".
- "*Geldi zaitetz ibiltari hori, heroi bat zapaltzen ari zara*" (Mercy-ko baroi alemaniarrena).
- "*Hemen datza bat/ zeinaren izena uretan idatzi zen*" (John Keats).
- "*Ibiltari horrek, nire heriotzagatik ez negarrik egin: ni bizirik egongo banintz, zu hilik egongo zinateke*" (Robespierrena).
- "*Hemen datza Margot, andere oso ederra; bi senar izan zituen, eta neska osoa hil zena*" (Austriako Margaritarena).
- "*Zeruen luze-laburrak neurtu nituen/ lurraren itzalak neurtu nituen/ nire izpiritua jainkoengandik jaisten zen,/ hemen datzate ene errautsak*" (Pascalen hilobikoa).
- "*Agintea laga zuen heriotza-zigor bat ez sinatzearen*" (Nicolas Salmeron, Espainiako I. Errepublikako Presidentearena).
- "*Hemen datza baretasun gatzean... ezer ez datza ordea, zeren poeta hau arima hutsa izan baitzen*" (Francisco de la Torreren hilobikoa).

Eta bukatzeko, literatura-gailur izaniko Shakespeare-ren hilobikoa:

- "*Bedeinkatua izan bedi harri hauek errespetatzen dituen. Madarikatua izan bedi nire hezurak mugituko dituen*".

Izan ere, beste hark zioen bezala, "*Orain, o inmortalitatea guttiz zara nirea*". Izan ere, zein laburra den bizitza! Izan ere, Sara-ko eliz kanpandorrean dioena: "*Oren guztiak dute gizakiaren bihotza kolpatzen, azkenekoak du hilobiratzen*".

*Ostiela! aldizkaria, 8. zenbakia: moldatua*




Berridatzi esaldi hau **baizik** moldea erabiliz:

*Hildakoei ez baina bizidunei diegu, edukitzez gerotan, beldurra.*

*Nola itzuliko zenuke gaztelaniaz esaldi hau?*

*Zalantzarik sortu bazaizu, ikus 45. orrialdean gure proposamenak.*



[ i ] [HERIOTZAK HIRU LEGE DITU

# Heriotzak uzten duen mina



Nagusi egiteak sufrimenduarekin ohitzea dakar, sufrimendu hori jasaten ikastea eta bizitzak ematen dizkigun kolpeei aurre egiten jakitea. Hau guztia heldutasunaren seinale omen da. Eta ibilian ikasten da.

Haurtzaroan gizarte mailako festarik adierazgarrienak baitaioak eta lehenengo jaunartzeak dira; adoleszentzia eta gaztaroan katalogo atsegin honi ezkontzak gehitzen zaizkio. Baina, behin berrogei urte gainditutakoan erritu sozial nagusia hilabete batean bai eta bestean ez lagun, lankide edo senideren baten hiletara joan beharra izatea da. Eta heriotzak gudan min berezi bat sortzen du, gure bizitzan funtsezkoa den pertsonaren heriotzak arazo konponezina ekarri digula eta pertsona hori betiko faltako zaigula aurkitzen baikara. Ezinbesteko eta ohiko gertaera gisa onartzeko aurrez prestatzen ez garenez, harritu edo nahastu egiten gaitu heriotzak, errealtate horri bizkarra emanda bizi baikara.

## Nahigabea


Maite duten pertsona bat galtzen dutenek sintoma berezi batzuk izaten dituzte, eta galera hori onartzeko hainbat etapa pasatzen dituzte. Batzuetan prozesua geldiarazten duten zailtasunak agertzen dira, eta prozesu hori are gogorragoa egiten dute, baina nahigabearen neurrigabeko sentipen hau planteamendu eta laguntza egoki batekin gaindi daiteke. Gaur egungo kultura honek zaildu egiten du nahigabea, baina biziraupen-sen handiko izaki azkarak izaki, zailtasunen aurrean erreakzionatu eta aurrera egiten dakigu, eta bestela ikasi egiten dugu. Ezbeharrak gertatu da, baina bizitzak aurrera egiten du eta egunerokotasunak gure arreta, gogo bizia eta buru-argitasuna eskatzen digu. Nahigabea ondo eramanez gero, errazago egingo zaio mina duenari egunerokotasunean beharrezko indarrarekin hastea.

## Nola jartzen da agerian nahigabea?

Sintomak depresioetan jasaten direnen antzekoak dira: tristura, lo egiterakoan gorabeherak, gose eta libidoan aldaketak, pisua galtzea... Munduarekiko interesa ere galdu egiten da, batez ere hildako pertsona gogorarazten duen edo zer bada. Lanagatik ere interes falta azaltzen da, harreman berriak egitean ere bai, estualdiak izaten dira, kulpa sentimendua, apatia, esperantza falta eta -kasurik larrietan- norbere buruaz beste egiteko ideia.

Gainera, sintoma fisikoak ere sortzen dira; hala nola, zefaleak, ultzerak, arnasketa-arazoak, bihotz-taupadak, izerdia eta organismoaren defentsak gutxitzea. Nahigabearen pausoak hauek izaten dira:

- **Sinesgogorkeria.** Lehenengo erreakzioa izaten da norbait galtzen dugula jakitean, eta horrekin batera buru nahasmendua ("hori ez zait niri gertatzen ari"). Errealitatetik urruntzen gara gertaera dramatiko hori arindu nahian.
- **Agresibitatea, haserrea.** Pertsona odol-berotu egiten da, ez dagoela ados adierazten du, eta zaila izaten da tratatzen. Inguruko pertsonen aurrean jarrera kritikoa hartzen du eta atsekabe hau zergatik gertatu behar zaion galdetzen dio bere buruari.
- **Depresioa.** Gogorik eza eta isiltasuna. Galerak ez duela atzera bueltarik konturatzen hasten da eta falta duen horren irudira ez lotzen saiitzen da. Etsipen triste eta isil bat da.
- **Onarpena eta bakea.** Galera lasai hartzen da. Pertsona zentratzen hasten da eta egunerokotasunera itzultzen da.





Nahigabea gainditzeko bizi egin behar da; horrek dakartzan ondorioak zein diren jakin ahal izateko aukera eman behar diogu geure buruari. Eta egoera hori jasaten ari denaren tristura ulertu behar dugu, gehiegizkoa edo exageratuegia dela iritzi arren.

Baina, nahigabea ez bada behar bezala "sufritzen" –ez badira fase batzuk bizi izan, eten egin bada edo emozio mingarriak gordez gero– sintoma patologikoak sortu daitezke falta zaigun pertsona horri etengabe lotuta egon beharagatik.

Azter ditzagun nahigabe patologikoren adierazleak.

- **Errudun sentimendua.** Heriotzaren errudun sentitzea, heriotza hori gerta ez zedin ez dugula nahikoa egin sentitzea, hildakoarekin arduratsua edo maitekor izan ezaren damua.
- **Heriotza-pentsamenduak.** Bizi dena hildakoarekin joan beharko litzateke, edo bere ordez hil.
- **Gauza ez izatearen sentimendua.** Ezerk ez dauka zentzurik, zendutakoa gabe ezerk ez du interesik, bera gabe ezer ez da berdina, ezin izango diogu bizitzari aurre egin.
- **Aluzinazioak.** Adibidez, zendutakoaren ahotsa entzun edo bere imajina ikusi.
- **Zendutakoaren gaixotasun bera daukagula irudikatu,** pertsona maitatuaren heriotza ekarri duen arazoa geure eginez.
- **Nahasketa.** Geure barruan eta munduan aldaketa sakona ari da gertatzen.

Alderdi psikomotorea moteldu eta hainbat funtzio organiko hondatu. ■



### Maite dugun norbait galtzean zer egin behar da?

Jarraian maite dugun norbait galtzen dugunean hartzen dugun jokabide eta uste batzuk zerrendatu ditugu. Ondoren, jokabide horiek berbideratzeko hainbat arrazoi eta aholku ipini ditugu. Zure lana behar bezala lotzea izango da. Horretarako ipini loturazko zenbakia koadrotxoan.

#### Jokabidea

- 1.- Heriotzaren xehetasunik ez dela jakin behar eta ezta gorpua ikusi ere pentsatzea.
- 2.- Amorrua, mina edo etsipena negar lazgarri edo garrasien bidez adierazten bada depresiorako bidean gaudela pentsatzea.
- 3.- Pertsona bat hiltzean bere oroitzapena galduko dela pentsatzea.
- 4.- Mina lehenbailehen gainditzeko eguneroko lanetara berehala itzuli behar garela pentsatzea.
- 5.- Falta den horren aldeko maitasuna kontuz adierazi behar dela pentsatzea.
- 6.- Haurrak lutu egoera hauen partaide ez ditugula egin behar pentsatzea.

#### Hainbat arrazoi eta aholku

- Gogorra izan arren, maite dugun pertsona horren desagerpenaren inguruko xehetasunak jakiteak desagerpena onartzen laguntzen digu. Informazio-faltak nahastea eta errealak ez diren fantasiak sorraraz ditzake.
- Gure kulturaren izaera tinkoa eta adorea baloratzen diren arren, emoziozko sentimenduak lasai adierazi behar ditugu.
- Haurrak nagusiok bezain gai dira nahigabeei aurre egiteko. Ez diezaiegun errealitatea ezkutatu. Galerak gainditzeko ikasi egin behar dute, lehenago edo beranduago iritsi egiten dira eta.
- Hausnartu eta mina bizi izateko denbora hartzea komeni da, galerak dakarren emozioen prozesu gogor horri aurre egiteko.
- Oroitzapena eta emoziozko loturak ez dira galtzen. Iraun egiten dute eta oroitzapen iragankor edo amets gisa agertu ohi dira.
- Sentimenduak azalratzea eta adieraztea behar-beharrezkoa da, galera barneratzen eta nahigabea gertatzen laguntzen baitute, gehiegizko adierazpenak edo gutxi garatutako kultura edo herrialdeetako gauzak direla pentsatu arren.

Zalantzarik sortu bazaizu, ikus 45. orrialdean gure proposamenak.

[ i ] [HERIOTZAK HIRU LEGE DITU

# Hiltzeko era ugari dago

Ibon Egaña

"Hiltzeko era ugari dago. Hiltzeko modu asko. Sabelean labana sartu ahal dizute, ogia ukatu. Gaixotasun bat sendatu ez. Hiltzeko era ugari dago: labana bat sartu ahal dizute." Negu Gorriak-ek jarri zion doinua Bertoldt Brecht-en poemari. Jakina da hiltzeko era ugari dauden bezala, heriotza bizitzeko, ulertzeko ere beste mila modu badirela. Eta literaturak sortze beretik jaso du gizakiok heriotzaren aurrean dugun larrimina eta kezka bere orrialdeetan. Era ugari dago hiltzeko, heriotza bizitzeko, heriotzaz idazteko. Xelebrea zen Fernando Amezketarra; hamaika pasadizo eta burutazio utzi dizkio ahozko kulturari Amezketan jaiotako bertsolariak. Eta bizitza bezalaxe, heriotza ere xelebrea, bitxia izan zuen Fernandok, herri usadioak dioenez: tristurarik gabe, saminik gabe, oinazerik gabe hil zen. Ez osasun ahulak, ez bortxazko heriotzak eraginda, bere kabuz eta berak hala erabakita zendu omen zen egun batez Fernando



Amezketarra. Nahikoa bizi izan zela erabakita. Hala jasotzen du, bederen, Koldo Izagirrek **Fernandoren heriotza amezketarra** (Bertsolari, 1999) liburuan, gure herri tradizioko pertsonaia xelebreenaren beste hamaika kontakizun eta ateraldirekin batera.


Gurean Fernando Amezketarrak ahoz aho izatea eta izena mantendu duen gisan, mundu zabaleko literaturan ere badira haien heriotza tarteko, ospea eta betikotasuna eskuratu duten

personaiak. Horietarik bat dugu Ivan Ilitx, Leon Tolstoik sortutako pertsonaia. **Ivan Ilitxen heriotza** (Ibaizabal, 1991) narrazio labur-reen, Leon Tolstoik Ilitxen azken egunak ditu kontagai. Sendaezinezko gaixotasunak ahituta, azketan dago Ivan Ilitx



funtzionarioa, eta heriotzaren hurbiltasun horrek eraginda, bat-batean, fotogramen gisan, bere bizitzako urteak berrikusi eta errepasatzeari emango dio denbora. Eta berrikuste horren ondorio, bere gaztaroa eta helduaroa zentzurik gabeko bide baten etapak baino ez zaizkio irudituko. Bizitza bera, norarik gabeko joate soila. Tolstoi errusiarrak, pertsonaiaren psikologian sakonduz, heriotzak gizakiongan eragindako larrimina arakutzen du.

Artemio Cruzena da literatura unibertsalean ospetsu egindako beste heriotza bat. Carlos Fuentes mexikarrak **Artemio Cruzen heriotza** (Ibaizabal, 2002) liburuan Artemio Cruzen bizi-




zitzako azken eguna hartzen du hizpide eta hari nagusi. Cruzen bizitzako azken hamabi ordu hauek, ordea, protagonistaren bizitzako hamabi egun garrantzizkoekin tartekatzen ditu, hala, pertsonaiaren bizitzaren zertzelada nagusiak emanez. Artemio Cruzen heriotza-

ren bidez, baina, Carlos Fuentesek ez du soilik pertsonaia zehatz baten bizitza eta heriotzaren kontakizuna egin nahi; areago, idazleak protagonistaren bizitza-heriotzak baliatzen ditu bere herrialdeko, Mexikoko kulturaren eta historiaren gaineko irakurketa zorrotz pertsonala egiteko. Nazio baten sorrera eta izatea esplikatzeke baliatzen du pertsonaiaren bizitza: istorioa idatziz, historia egiteko.

Bat-batekoa da sarritan heriotza, ustekabekoa, gaitz baten amaiera besteetan, baina bada iragarritako heriotzarik ere. Hala utzi zuen idatzita Gabriel García Márquezek **Heriotza iragarritako baten kronika** (Sendoa, 1982) narrazioan. Santiago Nasar protagonista, errurik eta orbanik gabe, errudun salatuko dute herritarrek eta heriotzara zigortu, egin ez zuen zerbaitengatik. Bayardo San Románekin ezkonduko Angela Vicarioren birjintasuna orbantzeaz salatuko dute herritarrek, eta hiltzea merezi duela erabaki. Herri guztia izango da, apurka, Santiagori ezarritako zigorraren jakitun, baina bera azken arte ez da ohartuko patuak beretzat erabakitako azkenaz.

Herioa bera bada, batzuetan, patu baten iragarle. **Herioa Venezian** (Ibaizabal, 1992) izenburuarekin, Thomas Mann idazle alemaniarrek heriotza-giroak blaitutako I. Mundu Gerra aurreko Europako giroa deskribatu zuen. Thomas Mannek literaturan eta gerora Luchino Viscontik zineman marraztu zuten Venezia hartan, heriotzaren presentzia nonahi antzeman daiteke, gerora etorriko zen hondamenaren seinale. ■



*Gaur hiltzea erabaki dut. Bai, badakit ez dela oso naturala nork berak deliberatzea noiz hil behar duen, baina gaur horixe etorri zait burura, hil egin behar nukeela. Jaioak hiltzea zor du, ez dago zertan harritu, bizitza hilbidea da. Hil beharrak eman dit, horra. Azkena aurreratatu dut. Lurperatzen baldin banaute, behinik behin, aspaldi joandako lagunekin egon nahi nuke, Migel Inazio gizajoa besarkatu nahi nuke, beleen beldur zenean egiten nuen bezala, beharbada hilerrian satorren beldur biziko da... Bizirik ezagutu ez nituen amezketar zaharren ipuinak entzun nahi nituzke, jakin nahi nuke zer moduz bizi diren hilerrian, eta nire juzku berdina egiten ote dieten munduan gelditzen direnei...*

Koldo Izagirre,  
*Fernandoren heriotza amezketarra.*

# Hamaika trikimailu 23

**S**aíl honetako gonbidatu guztiei, euskara ikasten aritu direnean bizi izandako hainbat konturi buruzko galderak egiten dizkiegu, denei berberak. Zuetako asko bezalaxe, euskaldun berriak izanik erantzun digutena interesgarria gertatuko zaizuelakoan.



## Abdelbasset Abdelatty

Izen hori du gure protagonistak, baina denek Abdu deitzen diote egiptiar honi. Ondarroan bizi da Araitzekin. Araitz orain hiru urte Egiptora joan zen, eta Abduk han egiten zuen behar Nilo bazterreko turistentzako txalupa batean. Orain bonbona partitzen dabil, taberna batean behar egin ostean. Hor hasi zen euskara ikasten Abdu, eta Araitzek ere laguntzen dio, jakina! Mantso-mantso hitz egin behar zaio oraindik ere Abduri, batez ere bizkaiera ez den beste euskara-mota bat erabiliz gero. Ez du oraingoz inongo ikastarorik egin euskara ikasteko, gaztelania ikasteko bai ordea. Araitzekin seme-alabarik izaten badu, hiru hizkuntza jakingo ditu haurrak: euskara, gaztelania eta arabiera. Esperantza hori dauka Abduk.

### 1. Nola ikasi duzu dakizun euskara apurra?

*Nik entzunez eta hitz eginez ikasi dut euskara, dakidan apurra: behar-rean, Araitzekin eta Araitzen familiarekin. Gaztelaniaz ere 20 orduko ikastaroa egin dut. Ez dut astirik euskaltegi batera joateko, baina ikasi egin nahi dut euskara. Hemen bada jendea betidanik bizi dena, eta ez du ahaleginik egiten euskara ikasteko. Nik ez dut hori nahi.*

### 2. Beraz, irakaslerik gabe.

*Nire irakaslea jendea izan da. Euskaraz berba egin nahi badu nik ez dut problemarik ipiniko. Gustatzen zait euskara hitz egitera animatzen nauen jendea, eta gero, astiro-astiro berba egitea. Eta ez izatea arrazista. Horrelako pare bat mutil ezagutu ditut Euskal Herrian, baina harrituta gelditu dira euskaraz esan didanean nire andrea euskalduna dela.*

### 3. Nork laguntzen dizu gehien euskara ikasten?

*Araitzek eta bere gurasoek. Ondarroan jendea majoa da. Animatzen naute, lasai-lasai berba egiten didate.*

### 4. Egunean zehar zenbat denbora eskaintzen diozu ahalegin horri?

*Goizeko zortzietatik arratseko zapiak arte egiten dut behar, edo zapi eta erdiak arte, eta kantsa-kantsa eginda bukatzen dut. Eta nahi dut zerbait egin, nonbaitera joan asteburuan ikastera, ordu-erdi edo ordu-bete, baina ez dago ezer. Gaztelania ere finkatu nahi dut, hemen jende guztiak daki eta.*

### 5. Laguntzen al dizute teknologia berriek euskara ikasten?

*Sartu naiz pare bat aldiz Araitzekin Interneten euskara irakurtzeko, eta gustatu zait, baina euskara ikasteko ez dut erabili. Internet erabili nuen Araitz ezagutu nuenean berarekin harremanetan segitzeko ni Egipton nengoen bitartean, eta bera hemen.*

### 6. Euskararen gramatikari, arauel, zein itxura hartzen diezu?

*Nik ez dut gramatika era sistematikoan ikasi. Baina batzuetan azaltzen dizkirate Ondarroako euskararen berezitasunak.*

### 7. Zer da ikasten errazena gertatu zaizuna?

*Euskara gutxi-asko ulertzen dut, baina zure euskara batzuetan ez dut ulertzen. Batzuetan elkar ulertzeko bi hizkuntzak erabili behar izaten ditut: euskaraz hasi eta gero gaztelaniaz segi. Biak ari naiz pixkanaka menperatzen. Batzuetan gertatzen zait zerbait gaztelaniaz esan nahi, eta euskaraz esan behar.*

### 8. Nola konbentzitzen duzu zeure burua ikasten jarraitzeko?

*Hemengo hizkuntza da, eta nik ikasi egin nahi dut. Hona etorri nintzenez galdetu nuen: "Zein hizkuntza egiten da hemen normalean?" Euskaraz, ba nik ikasi egin nahi dut. Ez dut gura egunen batean seme-alabak euskaraz berba egin eta nik ezer ez ulertzea, beraiekin berba egiteko gauza ez izatea.*

### 9. Une honetan, non erabiltzen duzu euskara?

*Nik kalean egiten du behar bonbona partitzen, eta askok badakite euskara ulertzen dudala, eta egiten didate euskaraz. Bada, kalean gehiena. ■*

## 24a Elkarrizketa Elka

**Klaudio Landa:**  
**"Hizkuntzak ondo**  
**ikasteko maitemindu**  
**egin behar duzu! Asko**  
**aurreratzen da".**




**K**laudio Landari elkarrizketa bat egitea oso xamura da. Ez, ordea, moztea, Klaudiok adinako hitz-jarioa duenik nekez aurki baitaiteke. Oso berritsua da, hiztuna erabatekoa. Eta hizketan ari dela mugitu egiten da, altxa noiz-nahi, eskuak mugitu, aurpegiarekin keinuak egin... Beti umoretsu, alai eta kontu ugari kontatzeko prest. Horien artean esan digu, jaio Gernikan jaio zela. Baina, Eakoa dela, nahiz eta Bilbon bizi izan den orain dela sei urte arte. Egun Donostian oso gustura bizi dela aitortu digu.

Hedabideen munduan hasi zeneko garaiak gogorarazi dizkiogunean, *Euskadi Irratian* eta *Euskadi Gaztean* emandakoak kontatu dizkiugu. Batez ere *Euskadi Gazteakoak*, eta hortxe bota ere bere-bereak dituen *txotxi*, *hallons* eta beste hainbat hitz-joko. Telebistarako jauzia, ordea, *Arralde* saioaren eskutik egin zuen, eta ondoren etorri ziren, *Hau da marka* lehiaketa, *Kale gorrian*, *Sorginen Laratza* eta *Esta es mi gente* saioak.

Ezagun du izugarri gustatzen zaiola lanbide hau, oso eroso sentitzen dela. Gainera, etxeko txikiena, etxeko artista izaki, umetatik omen du jendaurrean jarduteko berezko abildadea: "Nik txikitatik hauxe nahi nuen" dio. Ez omen da budista "nahiz eta Richard Gere-n antza dudán", baina patuan sinisten du eta txikitatik datorkion bideari jarraituko omen dio.





# arrizketaElkarri

25

**HABE.-** Telebistan ateratzeak abantaila ugari izango ditu. Baina, bestalde, anonimatua galtzea ere badakar, ezta?

**Klaudio Landa.-** Okerrena nire lagunentzat izaten da, koadrilakoentzat. Niri ez zait arraroa egiten. Nire familiakoei, arrebari esaterako, oraindik ere arraroa egiten zaio nirekin kaletik joan eta "ezagutzen zaitut..." entzutea. Ohitura ere bada. Hala ere, egia da eragina baduela. Adibidez, ogia eroatera zozenean, ogi-saltzaileak esaten dizu: "atzoko kasua ikusi nuen, a ze pena, eta egurra ematen zion?... eta abar." Baina, jendea atsegina da eta horrek zure egoa igotzeko behintzat balio izaten du. Horregatik, komenigarria izaten da lan honetan egoa oso puztuta ez izatea, gehiegi puztu daitekeelako. Eta kasu batzuetan eztanda egiten du.

**H.-** Bai desberdinak direla azken urte hauetan *Sorginen Laratzan* ikusi dugun Klaudio Landa eta *Esta es mi genten* ikusten ari garena!

**K. L.-** Askotan esan didate hau. Lehenengo eta behin, hizkuntza, bi hizkuntza desberdinetan ari naiz. Ikus-entzuleak desberdinak ote diren? Ez pentsa. Erregistroa, bai. Erregistro desberdineko saioak dira. Gainera, bata gauekoa da, bestea ez. Batak besteak baino umore gehiago du, batak formatu korala du, besteak aurkezle bakarra... Baina, gidoiari egiten duten lanak markatzen du, neurri handi batean, eta perfila zehaztuta dagoelako eta esatarien funtzioak definituta. Baina, *Sorginen Laratzako* gidoiak ezagutzen naute eta esaten dute "guk hau idatziko dugu, baina gero Klaudiok egingo du..." *Sorginen Laratzan* nire funtzioa dibertiaraztea zen. Ni profesionala naiz eta perfil batera edo bestera moldatzea tokatu zait. Baina, nola niri egiten dudana asko gustatzen zaidan, oso pozik nago.

**H.-** Beti zuzenean eta beti erlojuari begira. Hori ez al da oso nekagarria?

**K. L.-** Denbora zuzendariak zehazten du. Nik belarriko zuloan aurikular txiki bat daramat eta bertatik entzuten ditut agindu guztiak. Hala ere, inoiz gertatu zait "Isilik! Demontre! Kontxo!" esan beharra edo orain dela gutxi bezala oinekin "takoneo" zaratatsu bat egitea jendea isiltzeko -aluzinatuta geratu ziren-. Eskuekin keinu bat egitea ere komenigarria izaten da. Beno, trikimailu asko daudela, alegia. Baina, hori deba-teetan gertatzen da gehienbat eta hori espektakulua ere bada. Orain, ni bezalako berritsu bat tokatuz gero, arnasarik ere ez baitut hartzen hizketan jarraitzeko -nik esaten dut brankiak ditudala- zaila da. Baina, ikasi egiten da. Eta lasaitasunaren itxura ere eman behar da. *Sorginen Laratzan*, adibidez, nik gauza asko ikasi ditut saioan bertan baina, inguruan izan ditudan lankideek asko irakatsi didate, Xabier Euzkitzek asko. Adibidez, lasai egotearena. Xabier *aitite* da, lasaitasunaren dolmena, eta orduan, gogoratzen dut, nik uste dut hasieran izan zela, lehen urtean edo, Xabier atzeratu egin zela. Guzti-guztiak platoan geunden, 20 segundo falta ziren programaren kareta jartzeko eta Xabier ez zen agertzen. Urduritasun hori kontrolatu egin behar duzu telebistan zuzeneko saio batean, eta ezin zara urduri atera. Han atzean hekatonbea zegoen, kaosa. Erregidoreak "Hamar!" esan zuen, eta Xabier azaldu gabe. Halako batean "Bost!" esatean, Xabier ikusi nuen Speedy González balitz bezala. Bere lekuan jarri zen eta ezer gertatuko ez balitz bezala atera ginen. Eta horrek irakasten dizu beti-beti izan behar dela lasaitasuna.

**H.-** Patxadaren irudiaz gain, bestelakoa ere eman behar da: janzkeraz, makillajeaz... ari gara. Jantzi horiek nork aukeratzen




ditu? Zuk? Norbaitek esaten dizu zer jantzi behar duzun gaur?

**K. L.-** Saio honetan jantzitegian gertatzen den guztiaz hitz egingo dizuegu! Esklusiban, hemen dago tomatea! Jantzitegiko alde iluna! Niri betidanik erosketak egitea gustatu izan zait, telebistan hasi aurretik. Baina, jada ez, orain nagia sortzen zait. Gaur, esate baterako, jantzitegi-froga daukat eta bat-batean maniki bihurtzen zara. Orain konturatsen naiz modeloen lana zein desatsegina den, bere alde ezatsegina zein den. Horrelakoetan, zu panpina bat bezala joaten zara, eta hantxe daude saio horretako zuzendaria, jantzitegiko zuzendaria, estilista... Eta zuk arropak jantzen dituzu, erdian jarri eta guzti-guztiak zure akats guztiak aipatzen hasten dira. Hor ere ego handi xamarra izatea komenigarria izaten da, halako izaera fuertea, zeren eta hasten badira "begira nolako ipurdia, zer tripatzarra, hemen gaizki..." Azkenean lan mekanikoa da. Nik ez dut nire burua ikusten. Normalean kamerinotik atera aurretik esaten duzu "zer horterada", zure iritzia ematen duzu. Baina, zuzendariak eta estilistek markatzen dute. Logikoa da. Bereaiek nahi dutena aurkezlea gustura egotea da. Behin gogoratzen dut diseinatzaile handi batek egindako trajea, polita zena, jantzi nuen. Baina, izugarritzko mina egiten zidan. Jaka estua eta armatua zuen. Nik uste dut alanbreak zituela edo ez dakit zer zen eta izugarritzko mina ematen zidan. Mehe-mehe ateratzen nintzen. Beltza zen, puntu batzuekin, oso polita. Baina, aurkezteko ez zen batere egokia.

**H.-** Hedabideetan bi hizkuntzetan duzu eskarmentua: euskaraz eta gaztelaniaz. Zeure hizkera batean eta bestean aztertu al duzu?

**K. L.-** Nik uste dut telebistan edo irratan lan egiten dugunon-tzat oso garrantzitsua dela geure burua ikustea, nola egiten dugun, akatsak zuzentzeko. Nik egunero egiten dut. Egunero egindako programa ikusten dut eta gero, gainera, komentatu egiten dugu. Hori oso komenigarria da. Lotsa galdu egin behar da, eta gaititu ondoren, ikuspegi profesionaletik ikusten duzu. Nik autokritika betidanik egin dut eta gustatzen zait. Inguruko kritikak? Egia esan, batzuen kritika kontuan hartzen dut, zeren badakit oso profesionala dela, "ez dut uste oso ondo egin dizunik...". Zuk zeure burua kokatzen duzu eta bai. Nik lanbide honetan egunero ikasten dut -eta ez da txorrada bat, ez da topikazo bat-. Zeure burua ikusita edo entzunda ikasi eta buelta eman, eta autodisiplina. Adibidez, Xabierrek eta biok beti izan dugu oso harreman pertsonal ona, lagunak garelako. Lanari esker lagunak gara, eta, beste alde batetik, berak euskara ondo men-





# 26a Elkarrizketa Elk

peratzen du, erregistro asko erabiltzen ditu: asko daki *gure aititek*. Orduan, *gure aititek* maisuaren papera egiten du eta irakatsi egin dit asko. Baina, onena da bera entzunda nik asko ikasi dudala, nire euskara-maila berari entzunda asko hobetu dudala. Gainera, berak aitortu zidan bilakaera nabaria izan dudala *Sorginen Laratza* hasi zenetik.

**H.- Ez da bakarra. Jende gehiagori ere entzun diogu hori.**

**K. L.-** Bai, eta pozten naiz. Nik uste dut logikoa eta beharrezkoa dela alderdi hori zaintzea. Baina, bai, gustatu zait. Bera ondoan izanda asko ikasi dut. Eta ez bera bakarrik, Estitxu Fernandezekin egotea... Nik uste dut gainera Xabirekin gauza naturala izan dela, ikasketa-prozesu bat izan da, baina oso naturala. Edozein kasutan, eta nik uste dut gure artean ikasketa-prozesu horretan oso inportantea izan dela gure arteko harremana, bideratu edo ahalbideratu egin duelako. Konplizitatea genuen eta harreman ona daukazunean, askoz ere errazagoa da "aizu, gaizki egin duzu" esatea, zuzentzea. Xabierrekin ez dut zuzenketaren tentsazio hori izaten. Horregatik, nik beti esaten dut -ene! gero *gure aititetaz* esaten dut baina, ni ere txotxeatzen hasi naiz- hizkuntza bat ikasteko

oso inportantea dela harremana. Eta orain, hizkuntzak ikasteko nire metodologia aurkeztuko dizuet! Nik, esate baterako, Frantziakoa zen pertsona bat ezagutu nuen, baina nik frantsez ez nekien. Orduan, bi pertsonen arteko harremana izateko, eta badakigu maitasunaren hizkuntza nazioartekoa dela, baina bizitzan, egunero beste hainbat zeratan hitz egin behar duzu. Aizue! zenbat frantses ikasi dudan! Pila bat, idatziz ez baina... Orduan horrekin zer esan nahi dudan? Nik uste dut hizkuntzak ondo ikasteko maitemindu edo harreman estua izan behar duzula, asko aurreratzen delako. Imajinatzen duzue? Frantziara joan bere lagunak ezagutzera eta Klaudio Landa isilik! Eta esaten nion neure buruari "Aizu, Klaudio, zer edo zer egin behar duzu hemen, zeren bestela mutu geldituko zara eta ezinezkoa da, lehertu egingo zara". Eta jakina, hitz egiten hasten zara lotsarik gabe. Nik lotsa badaukat, baina gutxi. Baina, bai, nik uste dut harremanak oso garrantzitsuak direla. Xabier Euzkitze eta nire arteko kasuan, esate baterako, nik eskertu behar diodan gauza da hori: asko irakatsi didala, nik asko ikasi dudala bere ondoan, eta pozik nago. Eskerrik asko, Xabi! Eskerrik asko! aitortzen dut. ■

## Motz-motz

### Zein duzu telebistako saiarik gustukoena?

Deskonektatzeko *Sexo en Nueva York* asko gustatzen zait. Eta *Sexo.com*, nire lankide den Mirentxu Purroyren saioa asko gustatzen zait.

### Ba al duzu zaletasunik?

Zinea, lagunekin egotea, ondo jatea eta lagunarekin ondo egotea.

### Biziorik?

Esan daitezkeen artean, erretzea edo Arabako Errioxako ardoa edatea. Zein zozoa naizen, ez? Igual beste gauzaren bat bai.

Baina, ez dut esango.

### Zein da esku artean duzun liburua?

Fernando Olmedaren "El látigo y la pluma", Espainiako diktaduran homosexual jakandako oinaze eta problemei buruzkoa. Baina, aitortu behar dut ez dudala denbora handirik hartzen irakurtzeko.

### Arropa kontuetan diseinatzailearik gustukoena zein duzu?

Oso ondo egongo litzateke diseinatzaileei ez diedala jarraitzen esatea baina, egia esan, Paul Smith britainiarra asko gustatzen zait.

### Musika-talde bat:

Niri Brasileko musika asko gustatzen zait, Carlinhos Brown, adibidez.

### Akats bat:

Berritsua naizela. Gehiago dauzkat, baina...

### Animaliak gustuko dituzu?


Katu bat daukat etxean. Ez dakit ez ote nintzen faraoia izango aurreko bizitza batean edo.


### Zein da gustukoena duzun aktore edo aktorea?

Asko daude, baina Diane Keaton asko gustatzen zait eta urteekin asko irabazi du. Jack Nicholson ere bai.

### Zure hizketa-saio luze eta berritsu horietan, ba al duzu askotan errepikatzen duzun molderen bat edo?

Eske, hori, eee, eske, aber... Zinta berriz entzun eta ikusiko duzu! Baina, "nolabait" en aroa ere izan nuen. Xabier Euzkitzek ohartarazi eta "nolabait" hori zuzendu egin nuen.





# Bidaia

27

Testua (erredakzioan  
euskaratua) eta argazkiak:  
Jesús Torquemada




## XANGAI: Ekialdeko hiriburua

Txinan bizikletak estimazio handia dauka, eta autoak ere geroz eta gehiago.



Herriko Plaza. Xangairen erdian jarraitzen du, baina erabat itxuraldatu dute azken 15 urteotan.



Orain 15 urte Xangai Huangpu ibaian amaitzen zen. Ibaiaren beste aldean zenbait hustutako **lantegi** eta **nekazarien** hainbat lursail zeuden. Gaur egun **oso bestelakoa** da Pudong izeneko paraje hori. Hogeita hamar **etxe orratz** izango ditu bulegoz beteta, saltoki handiak, eta baita telebista-dorre zatarra ere. Eta bukatzen dutenean munduko etxe orratzik handiena izango dena **eraikitzen** ari dira. Aireportua ere hortxe dute, oso ederra arkitekturaren aldetik. Eraikin honetatik hiriaren erdira joateko Maglev izeneko trenera igo daiteke. Tren honek ez du **lurzorua** ukitzen, lebitazio magnetikoz egiten du aurrera. Airean joaten da, munduko azkarrena da, baina egiten **garesti amorratua**. Siemens enpresa alemaniarra dabil Maglev egiten, baina Alemanian bertan ez dute oraindik ezarri: hain da garestia! Txinara bai, hara iritsi da kapritxo hori.



Bund-en gaude. 20ko hamarkadako eraikin horiek Xangairen erdian daude oraindik.

**ERAIKI.**- Construir. Construire.  
**ETXE ORRATZ.**- Rascacielos. Gratte-ciel.  
**GARESTI AMORRATU.**- Oso garestia. Muy caro/a. Très cher/e.  
**LANTEGI.**- Fábrica. Usine.  
**LURZORU.**- Suelo, superficie. Terre.  
**NEKAZARI.**- Laboraria. Campesino/a. Paysan/anne.  
**OSO BESTELAKO.**- Oso ezberdina. Muy diferente. Très différent.



Belaunaldien arteko aldeak jantzietan. Mao trajea darabilte oraindik hainbat zaharrek, baina neska gazteak mendebaldeko arropak liluratuta bizi dira.



Ming dinastiako eraikinak Yuyuan lorategian.

Xangai hiria **berritzen** ari da, horren **X**erakusgarri da Pudong. Hiri osoa ari da berritzen, ordea. Eraikin zaharrak bota, eta haien ordez apartamentuak eraikitzen dituzte, ehunka, edo saltoki luxuzkoak, European edo Ipar Amerikan bezala. Kale estuak kendu eta **etorbide** zabalak sortu dituzte. Herriko Plaza **orube** handi-handia zen Maoren garaian, eta militarren desfileak bertantxe egiten zituzten. Orain ikusi egin behar da toki hura: hantxe daude JW Marriott hotel sinestezina, Opera eraikin ikusgarria, Xangai Museoa, munduko onenetakoa, eta Hiriko Plangintzarako Museoa. Museo honetako **lehen solairuan** maketa bat bada hiria nolakoa izango den erakusten duena. Maketak beretzat dauka solairu oso-oso.

Expo erakusketa unibertsala hantxe izango da 2010ean. Eta Xangaik mundu osoa liluratu nahi duenez, ez du dirutza itzela gastatzeko inolako erreparorik. 2008an Pekinen Joko Olinpikoak izango dira, eta Xangaik ez du lotsagarri gelditu nahi Pekinen aurrean. Bi hiriren arteko **norgehiagoka** beste herrialde batzuetan ere izaten da, ez han bakarrik.

Saltokiz betetako bi kale aipatzekotan, Huaihai eta Nanjing aipatu behar dira. Horiek ikusita zeinek esango luke herrialde komunista batean gaudela, edo hobeki esanda, Alderdi Komunistak gobernatzan duen herrialde batean gaudela? Egia da hiriak ez duela Maoren garaian **antzaren arrastorik**. Politika ez da aldatu, Alderdi Komunistak segitzen du agintean, berak bakarrik. Baina, ekonomia aldatu egin da, han ere eskaria-eskaintza "bikoteak" agintzen du geroz eta gehiago. Ingurune kapitalista bihurtu zaigu Txinaren alde hau. Gazteek markako arropak janzten dituzte, marka ezagunak direnak nazioartean. Eta **esku-ko telefonoa** ere ia nornahik dauka han ere. Autoa bera ere "**oldartzen**" ari zaio betiko bizikleta gaixoari.

Huangpu ibaiaren ondotik doan Bund etorbidea ere berrindartu da. 30eko **hamarkadan** jende ugari ibiltzen zen

han, eta gaur ere **halatsu**. Orduan nazioarteko negoziok burutzen ziren Huangpun, eta gaueko martxak ospe handia zuen Asia guztian. Handikien eraikin bikainek han dira: art déco estilokoak dira. Eta hantxe daude hainbat hotel, banketxe, aduanetako bulegoak... *Peace Hotel* ederrean sartu, eta ematen du 70 urte egiten dugula atzera. 1949an, ordea, komunismoa iritsi zen eta Shanghai **lozorroan gelditu** zen 1980a arte, Den Xiaoping ekonomia aldatzen hasi zen arte. Esan daiteke Xangai esnatu egin dela, eta lanean dihardu txinatarren estiloa ezin hobeto ezarri. Orain dela 15-20 urte hara joan zenak gaur egun ez luke ezagutu ere egingo. Eta aldatzen segitzen du.

Jakina, Xangaik 14 milioi lagun ditu, eta **beltzuneak** ere baditu, kontraste latzak. Alde batetik, apartamentu modernoak daude, eta bestetik, komunik gabeko etxebizitzak: ondoko etxekoekin komuna konpartitu beharra dute hainbat xangaitarrek. Patio komunaletan daude komun horiek, eta patio horietan **eskegitzen** dituzte baita ere **lehortzeko** arropak, banbuz egindako pertika luze batzuetan, guztien bistara.

Tren geltoki erraldoiak Txinaren beste alderdi bat erakusten digu. Milioika nekazari datoz hiriara, goseak **estututa**. Paradisuaren pare jartzen dituzte hiriak telebistan, eta **amuari** heltzen diote laborariak. Txina oso zabala da eta **alde** handiak daude **eskualde** batetik bestera. **Itsaso-bazterrera** iritsi da mirari ekonomikoa, hiri jakin batzuetara, baina **lehorreko** jendeak oso urruti dauka mirari hori.

Turistak badu Xangain zer ikusia. Yuyuanen lorategietan Ming dinastiaren garaiko **bizimodua** nolakoa zen ikus daiteke. Ondoko azokan bisitariak **ukalondoak** ezker-eskuin **astindu** beharko ditu, beti **jendez lepo** baitago. 1921ean Maok adiskide batzuekin Alderdi Komunista sortu zueneko etxea ere Shangain dago. Jinmao dorreko 86. solairura igota,

berriz, **ikusmira** ederraz goza daiteke. Lehen aipatutako museoak ere ezin dira bazterrean utzi. Eta tenpluetan, komunismoa komunismo, txinatarren erlijio-sinismena ez dela itzali antzematen da. Tenplurik ikusgarrienak hauexek: lehena budista, Jade Budarena, taoista bestea, Chenghuang Miao, Yuyuan azokan bertan azkeneko hau.

Baina, guztiaren gainetik, Xangaik kaleak ditu apartekoak. Ibili kalez kale, sartu dendetan, sartu jatera, badago eta non aukeratu. Horrela hartuko diozue neurria, hartzekotan, Asiako hiririk garrantzikoena bihurtzen ari denari. **Tokitan gelditu** dira Tokio eta Hong Kong. Xangai da etorkizuna. ■



Demagun zure lagun bat opor-bidaia prestatzen eta nora joan erabaki ezinik ari dela. Zuk Xangaiko berri ematen duen artikulu hau irakurri duzu eta oso interesgarria irudituz zaienez, bertara joatea proposatu nahi diozu.


Bigarren aldiz irakur ezazu artikulu eta helburu hori gogoan hartuz, azpimarra ezazu zure laguna konbentzitzeko baliagarri izan daitezkeen ezaugarriak eta argudio bihurtu. Zure proposamena nola adieraziko diozun zerorrek erabaki: eskutitzez, posta elektronikoz... Edo ahoz. Ahozko saioa beste ikasle baten laguntzaz egiten baduzu, askoz hobeto. Idatzizkoa aukeratzen baduzu, errespetatu itzazu testu-erak berak dituen baldintzak.

Eta jakina, guri bidali nahi izatera, gustura irakurri eta zuzenduko dugu. Badakizu zein den gure helbidea: HABE Aldizkaria, Vitoria-Gasteiz kalea, 3, 5.a 20018-Donostia.

**ALDE**.- Diferentzia. Desigualdad. Disparité.  
**AMU**.- Cebo. Amorçe.  
**ANTZA ARRASTORIK**.- Antza izpirik. Parecido ninguno. Aucune ressemblance.  
**BELTZUNE**.- Hutsuneak. Zona oscura, degradada; moratón. Zone bleue.  
**BERRITU**.- Renovar. Rénover, renouveler.  
**BIZIMODU**.- Modo de vida. La vie.  
**ESKEGI**.- Colgar. Pendre.  
**ESKUALDE**.- Región. Région.  
**ESKUKO TELEFONO**.- Teléfono móvil. Téléphone portable.

**ESTUTU**.- Apremiar. Opprimer.  
**ETORBIDE**.- Avenida. Avenue.  
**HALATSU**.- Berdintsu. Más o menos igual. Plus o moins semblable.  
**HAMARKADA**.- Década. Décade.  
**IKUSMIRA**.- Panorámica. Panoramique.  
**ITSASO-BAZTER**.- Zona costera. Côte.  
**JENDEZ LEPO**.- Jendez mukuru. Hasta los topes de gente. Plein à craquer.  
**LEHEN SOLAIRU**.- Primer piso. Premier étage.  
**LEHORREKO**.- Barrukoa. Del interior. De l'intérieur.

**LEHORTU**.- Sikatu. Secar. Sécher.  
**LOZORROAN GERATU**.- Adormilarse. Somnoler.  
**NORGEHIAGOKA**.- Lehiaketa. Rivalidad. Concurrence.  
**OLDARTU**.- Ponerse gallito. Être très courageux/euse.  
**ORUBE**.- Solar. Terrain vague.  
**TOKITAN GELDITU**.- Urruti gelditu, atzendu. Rezagarse. Rester en arrière.  
**UKALONDOAK ASTINDU**.- Dar codazos. Jouer de coudes.



## Hain ondo ematen dizu heriotzak!

Pelikula askotako protagonista da heriotza, aldez edo moldez. **Bat-batekoak** izan daitezke, edo ez; eztiak, edo basatiak. Pendulu batek hil dezake norbait, urkatua hil daiteke, edo gillotinan, edo garroteak torturatua... Batzuk edertu egiten ditu heriotzak, ondo jantzita jartzen dituzte eta hil-ostean; bada norbait hiltzeko ordaintzen duenik, edo nekearen nekez hiltzen direnak, edo loreen artean **azken hatsa ematen** dutenak. Venezian hilko dira, edo Parisen, Las Vegasen agian... eta seguru norbait berpiztu egingo dela, zoombi, **aingeru**, deabru edo mamu **gisara**. Bidaiariak hiltzen dira, txirindulariak, Mikel, Sigfrido, semea, neskamea... Pelikula asko dira, zeren azken batean gure bizitzako galdera ohikoenetakoa da Ventura Pons-en pelikulako izenburua: "Hil, bai ala ez?"

Nahi adina heriotza ditugu zinemagintzan, baina guztiek ez dute **arrasto** bera utzi gure oroimenean. **Herio sega** bati lotua irudikatzen dugu mendebaldean; ez dakigu giza-seme ala andrazko den, bietatik izango du beharbada. Ez da irudi modernoa, aspaldiko grabatuetan azaltzen da, Erdi Aroko iruditerian era askotara dator. Nekazari-girokoa dirudi, segan egiten baitu Heriok, segarekin kentzen digu bizia, berarekin eramateko. Sinbologia hori darabil Ingmar Bergman zuzendariak "The seventh seal" delakoan. Erdi Aroko **izurrite** lazgarri hiltzailea du **hizpide**, eta Herio bidera ateratzen zaio **Gurutzada** egitetik datorren zaldunari. Hil ala biziko borrokaren **jokalekua** xake-taula bat da. Kurioso da, baina xakean "mate" hitza esaten da aurkaria hiltzen denean. Hori izango da azken errematea, atzeratu ezinezkoa. Bergmanek gizaki orok dituen galde-erantzun **berezkoenez hausnartzen** du, heriotzaz, eta horren aurrean Jaungoikoak erakusten duen isiltasunaz. Pelikulaz pelikula Herio darabilkio bueltaka Bergmani, gizakion galdera metafisiko sakonena, azken batean.




Bergmanen aurretikoa da Carl Theodor Dreyer zinegile bikaina. Hau Danimarkakoa eta hura Suediakoa. Ipar parte-koak biak, beraz. Erljio aldetik, protestanteen eragina dute biek, mistizismo **zorrotzenarena**. Lagun mina, maite dugun **kuttuna**, hiltzera doa. Horixe ageri da Dreyer-en "Ordet" filmean, Ordet hiltzera doala. Heriotza badator, eta azkenean iritsi egingo da, eta Jesusek Lazaro bezala berpiztu nahiko du **zendua**, hitz bat esanda. Erljioak esaten dio heriotza **atendu** egin daitekeela, geroago etorriko dela **baldin eta** lagun hori maitatzen badugu. Hori da **miraria**: "maitasunak heriotzari irabazi egiten dio".


"La stanza del figlio" egin zuen 2001ean Nanni Moretti

"The seventh seal"



"Ordet"





“Mar adentro”

italiarrak, semearen logela, esango genuke. Heriotza horrek ez du ez buru ez hankarik, **ulertezina** da, hasiera-hasieratik. Bizitzaren legea da **norbera** baino gazteagoak geroago hilko direla. Gauzak normal joanda zaharrak hilko dira lehendabizi, aiton-amonak, **gurasoak** ondoren, eta gero hauen seme-alabak. Gaiztakeria da berezko **hurrenkera** hori **hankaz gora** jartzea, nekeza onartzen. Pertsonaren berezko garapen psikologikoa **zartatu** egiten da horrela, minbera bihurtzen da. Ez aberats, ez behartsu den familia batek semea galduko du. Familia horren **joan-etorri** mingarriak dakartza Morettik. Moretti bera da aita filmean, ama Linda Ferri. Joan-etorri horiek luze egiten dira, **bihurgunetsuak**, baina azkenerako negar egiteak ekarriko die lasaitasuna. Gertatutakoa onartzeak ere laguntzen die lasaitasuna berreskuratzen, eta inguruko jendea maitatuta ere lortzen dute bake hori.

Alejandro Amenabarrek aurten egin du “Mar adentro”. Lehenagokoa du “The others”, eta hor ez daude oso argi bizitzaren eta heriotzaren arteko **mugak**. Aurtengoan, berriz, norberak nola eta noiz hil nahi duen erabakitzeke ahalmena duela aldarrikatzen du: “persona askea naiz, **neure buruaren jabe**, eta nik neuk erabaki behar dut nola hil naitekeen. Erabakirik garrantzizkoena da, eta **nor da nor** hori ukatzeko inori?”. Gai honi heltzeko Ramón Sanpedro galiziarren bizitzan oinarritzen da. Komunikabideek asko hitz egin zuten bere garaian Ramon Sanpedroren nahiez eta desioez. Horrela eutanasia eta heriotza duina, gai horiek guztion ahotan ibili ziren.

Gurean ere heriotza pelikula askoren ardatz izan da. Imanol Uribek “La muerte de Mikel” burutu zuen hileta bat aitzaki hartuta. Mikel homosexual etsitua da, politikan sartuta dabilena, konforme ez dagoena gizartearekin, gizarteak ez duelako jende berezia onartzen, ezta ere **bere kasa** ibili nahi duena. **Bortizki** hila, gizarte osoa ari da galdeetzen nork hil duen. Koadrilakoek agian, militantz kideek, familiak...? Ala bere burua hil du?

Montxo Armendarizek ere badarabil heriotza, nahiz ez izan beti bere pelikuletako gairik nagusia. Gaur egun “Obabakoak” filmatzen dihardu Hondarribian, baina “Escenario móvil” aurretik egin du, eta aurtengo Donostiako Zinemaldian ikusi dugu. Extremaduran herriz herri eta urtez urte dabilzan musikariak ikusten ditugu. Herri txikiak dira, **gutxika** hiltzen ari direnak. **Etsiak**, esperantzarik ezak, beti pobre izateak, horiek ere heriotza dakarte, **suntsipena**, ihesa, lurra erretzea... ■

Montxo Armendariz



Ikusiko duzunez, oraingoan ez dugu hiztegiaren atala behar bezala osatu. Testua lagun, bete itzazu hutsuneak.

**AINGERU.**- *Angel.* Ange.

**ARRASTO.**- *Rastro.* Trace.

**ATZENDU.**- *Rezagarse.* Retarder.

\_\_\_\_\_.- Hil. *Dar el último aliento.*

*Mourir, jeter son dernier soufle.*

**BALDIN ETA.**- *Si* (condicional). Si.

\_\_\_\_\_.- *Repentino/a.* Subit/e.

\_\_\_\_\_.- *A su aire.* Par soi-même.

**BEREZKO.**- *Innato/a.* Inné/e.

**BIHURGUNETSU.**- *Sinuoso/a.* Tortueux/euse.

**BORTIZKI.**- *Agresivamente.* Aggressivement.

**ETSI.**- *Claudicar.* Céder.

**EZ.**- *No, falta de, ausencia.* Abscence.

**GISARA.**- *A modo de.* Comme.

\_\_\_\_\_.- *Progenitores.* Parents.

**GURUTZADA.**- *Cruzada.* Croisade.

**GUTXIKA.**- *Lentamente.* Lentement.

\_\_\_\_\_.- *Patas arriba.* Sens dessus dessous.

**HAUSNARTU.**- *Reflexionar.* Réfléchir.

**HERIO.**- *La Muerte.* La Mort.

**HIZPIDE.**- *Tema.* Sujet.

**HURRENKERA.**- *Ordena.* *Sucesión.* Suite.

\_\_\_\_\_.- *Peste.* Peste.

**JOAN-ETORRI.**- *Idas y venidas.* Allées et venues.

**JOKALEKU.**- *Escenario.* Cadre.

\_\_\_\_\_.- *Maitea.* *Amorcito.* Amourette.

**MIRARI.**- *Mirakulua.* *Milagro.* Miracle.

**MUGA.**- *Frontera.* Frontière.

\_\_\_\_\_.- *Dueño/a de mí mismo/a.*

*Être son maître.*

**NOR DA NOR.**- *¿Quién es quien?* “Qui est-ce qui?”

**NORBERA.**- *Cada cual.* Chacun/e.

**SEGA.**- *Guadaña.* Faux.

**SUNTSIPEN.**- *Destrucción.* Destruction.


\_\_\_\_\_.- *Incomprensible.* Insaisissable.

**ZARTATU.**- *Resquebrajar.* Fendiller.

\_\_\_\_\_.- Hil. *Morir.* Mourir.

**ZORROTZ.**- *Inflexible.* Inflexible.

Zuzenketa, 46. orrialdean.





Asierren aifona, Krikekin bafera, basoan dabil ihes egin nahian. Asier, berriz, beregana doa oporrak igarotzera.

Gidoigilea: Jose Luis Esparza  
Marrazkigilea: Daniel Redondo





**B**adira bi urte gure aitona azkeneko aldiz bisitatu nuela.

Bere etxera itzultzea ez da oso ideia erakargarria.



Bi gela zituen txabola bat zen...




...batean sukaldea zegoen eta bestean logela...



...oraindik ere gogoan dut irudi hori.



**G**ure aitona, mapaz eta zirriborratutako zeinuz betetako mahai zahar haren gainean.



Eta usaina gogoratzen dut, basotik bueltan zetorrenean zekarren egur eta goroldio-usaina...



...etxe osoan zabaltzen zuen usaina.



Azken uda hartan ia beti gogoa beste nonbait zeukan gure aitona.

**1. Munstroa**

Aitonaren atzetik dabilen munstroa ez da nolana hiko. Egizu bere deskribapena ondoren eskaini dizkizugun ezaugarriak aipatuz:

Ezaugarri fisikoak: tamaina, aurpegia eta eskuak.

Erakusten duen jarrera

**2. Atea**

Une jakin batean atea aipatzen du Asierren aitona, baina, zer uste duzu zuk?

- Aitona larri dago eta horregatik zentzurik ez duen kontu batekin ari da.
- Basoan ez dago aterik.
- Fikziozko mundu batetik benetako mundura joateko moduz ari da aitona.
- Beste bat. Hemen idatzi: .....

**3. Aritz hausnarrean**

Aitonaren txabolarako bidean, Aritzek pentsatzen emango du bidaia. Arretaz irakurri eta esan hurrengo esaldiok EGIA ala GEZURRA diren:

	<b>EGIA</b>	<b>GEZURRA</b>
1. Hiru urte igaro dira Aritzek bere aitona bisitatu zuenetik	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2. Gustura doa Aritz aitonarengana	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3. Aitonaren txabolak bi gela ditu	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4. Aitonaren usaina gogoratzen du Aritzek	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5. Aitonak arreta handia eskaini zion Aritzi bere bisitan	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

**4. Hizkuntzari erreparatuz**

*Badira bi urte gure aitona azkeneko aldiz bisitatu nuela.*

Esaldi hau gogoan hartuta, bi molderi erreparatzea nahi dugu:

- Gure aitona, eta ez nire aitona
- Badira... (e)la

Saia zaitez orain esaldi hauek itzultzen:

- Hace ya cinco meses que no veo a Mikel.* / Il y a cinq mois que je ne vois plus Mikel.
- Mi padre siempre está trabajando, no descansa.* / Mon père il est toujours au travail, il ne se repose point.
- Hace tres semanas que no vienes a verme.* / Il y a trois semaines que tu ne viens pas me voir.
- Tu madre se parece a la mía: siempre riñendo.* / Ta mère se ressemble à la mienne: toujours grondant.



# Guggenheimen Oteiza: mitoa eta modernotasuna

Testua eta argazkiak: Juanjo Dorronsoro

Gizon oso prestu batek esan zidan lehengo egunean  
Jurgi Oteizak  
Aita Donostiaren oroitarria imajinatu baino lehen  
cromlecheta lurrarekin  
egin zuela hitz,  
lurrean geratzen baitira  
ez bakarrik gizonen eta andreen hezurak,  
baita haien pentsamenduak eta sentimenduak ere baizik.

Gabriel Aresti

**G**uggenheim museoak Oteizari eskaintzen dijon atzera begira-koa, inoiz egin zaion handiena da. Txomin Badiola eta Margit Rowellen komisarioei esker 140 eskultura eta 43 marrazki eta collage behatzeko aukera dugu urtarilaren 9ra arte. Garrantzi berezia dauka erakusketa Guggenheimen egiteak, bere artelanak ez direlako aski ezagunak atzerriko arte-guneetan.

Luis Mitxelenak zioen Oteiza akuilu bikaina izan zela Euskal kulturarentzat. Berari esker, tradizionalismoaren ikuspegiak zokoratu eta harantzago begiratzen ikasi baikenuen. Bere jeinu ukitua euskal kultura berritzeko ezinbestekoa izan zen. Quosque tandem...! oihukatu zuen Oteizak, Zizeronek Katilinariae-tan bezala. Preso zuen euskal kulturari benetako bideak irekitzeko.

Oteizak eragindako zirrara ez zen mugatu bakarrik artearen alorrera. Euskal Herriko pentsalari askoren jarrera sakonki aldatu zen *Quosque tandem...!* liburua (1963) argitaratu ondoren. Benetan pizgarria gertatu zen, orri haietan defendatutakoa, kulturaren munduan murgildutakozentzat.

Jorge Oteizak huts kontzeptua jorratu zuen cromlech edo harrispilaren hutsunean oinarrituz. Jorgek aldarrikatu zuen hutsaren kontzeptua jadanik oso landua zuten Frantziako eta Alemaniako filosofoek. Berak, ordea, euskal kulturara egokitzen asmatu zuen.

Hutsaren barrutian eraiki behar zen euskal estetikaren laborategia. Espazio-cromlecharen habian zegoen gure etorkizunaren gakoa. Espazio mitiko-erlijiosoaren azterketan, Arrautzaren Estetikan, Desokupazio-prozesuan, Aldaketen legean eta Klarion Labirintuan, hutsaren kontzeptua lantzen du Oteizak. Altzuzako museoaren kokagunea espazio hutsaren begiratoki bikaina da. Sáenz de Oizaren eraikinak eta bertako terrazek zeru zabala besarkatzen dute. ■



● Oteiza museoaren sarrera

● Moreno Galuamen burua

● Pasealeku berriko eskultura: "Eralduntza hutsa alde positibo-negatibo zapalakin" (1957)

● "Esferearen desokupazioa" (1958)

Oteizak 1929an medikuntza fakultatea utzi eta arte eta lanbide eskolan sartu zen. Lehen ikasketak Madrilan egin zituen Lekuona, Balenciaga eta Jose Sarriegirekin batera. Jorge berehala ohartu zen ez zuela merezi baserri giroko artegintza jorratzea. Ez zitzaion batere erakargarria egiten izadiko armonia eta edertasuna, besterik gabe, kopiatzea, hura izan arren orduko pintore eta eskultore gehienen jardura. Oteizak kontzeptuetan oinarritutako artea zuen gogoko eta Madrilan Alberto Sanchezen tallerrean aurkitu zuen berari zegokion giro aurrerakoia. Han ezagutu zituen, besteak beste, Malevitzen, Kandinskyren, Henry Mooren, Brancusiren, Mondrianen eta Cristino Maloren ideia estetikoak.

Euskal arima birjaiotzea zen bere erronka. Jorgek euskal unibertso berri bat sortu nahi zuen. Oteizarentzat arteak ez zuen ordezkatu behar errealtatea. Artea eta errealtatea, artea eta bizitza ezin baitira ezberdinak izan. Euskal gizakiaren dimentsio utopiko hura, ordea, kezagarria iruditu zitzaion gerra aurreko euskal kulturaren ardura-dunei eta Oteizak, hemengo giroa utzi, eta Ameriketara alde egin zuen.

Hegoamerikan eta Ertamerikan behatu zuen Colonen aurreko artea eta errusiar konstruktibismoa zutabe garrantzitsuak izan ziren Oteizaren proiektu estetikorako. Unamunoren pentsaera tragikoa eta Loiolako San Inazioaren Gogo-jardunak ere sakonki aztertu zituen. Etika eta estetika banaezinatzeko ziren bizi proiektu oso bat garatzeko. Eskulturaren esparrua bere ikuspegi filosofikoari itsatsita zegoen.

Hirurogeiko hamarkadaren hasieran eskultura egiteari utzi arren, bere abentura artistiko-estetikoa ez zen amaitu. Azaleko irudien eta formen kemena ondo barneratu baitzuen. Bizi indarra eta bizitzaren misterioa lantzeko ez zegoen objektuak zertan gauzaturik. Arte adituek diote Jorgearen nortasuna poliedrikoa dela. Eta egia da, Oteizak diziplina asko aztertu zituen: mitologia, poesia, antropologia, arkitektura, erlijioa, estetika...

# ARGITALPEN BERRIAK


## ALBOKA

LAU ANAIK

Elkar, 2004

Joxan Goikoetxeak eta Alan Griffinek osatzen duten *Alboka* taldearen laugarren diskoa da *Lau anaiak*. Disko berria bai, baina betiko asmoz egina: euskal folkarekin denok goza gaitezen. Horretarako, doinu eta kantu herrikiokai egokitu eta moldatu.

Aukeratu dugun kanta, berriz, hauxe: .....



Konturatuko zinez, gipuzkeraz dago idatzita. Saia zaitez hitzak batuaz jartzen.

## NERONEK TIRAKO NIZKIN

*Mila beatzireun gañera hogei ta  
Amaseigarren urtian  
Gerra triste bat sortu zitzaigun  
Españiyako partian  
Esan biarrik ez dago zala  
Soldaduentzat kaltian  
Ni ere kintak arrapatuta  
Or ibili naiz tartian  
Hamaika amaren seme sartu da  
Urte auetan lurpian.*

*Bizkayan Yurre izena duan  
Erri batian sartuta  
Bizirik juxtu atera nintzan  
Sari ederra artuta  
Mayatzak hogei ta lau zituan  
Egunian erituta  
Kamilleruak jaso niñuten  
Geyena odol ustuta  
Ospitalera ekarri naute  
Tiruak anka moztuta.*


*An bi anayak elkarren kontra  
Giñala guk ez genekin  
Inkurriorik gabe alkarri  
Tiroka fusillarekin  
Urrena berriz ospitalian  
Bildu giñan alkarrekin  
Negar egiñaz berak esana  
Ordun pena ederrarekin:  
"Ire oiñ oyek jotako balak  
NERONEK TIRAKO NIZKIN"*

## BAT GEHIO

Diaspor han

Gaztelupeko hotsak, 2004

Diasporan, Bartzelonan, grabatu du *Bat Gehio* taldeak disko hau. Heriotza gai nagusi duen ale honetarako, berriz, diskoaren lehenengo kanta aukeratu dugu, bizitzari eskainia baitago.



## Nire Gatza De la Vida

*Nire gatza de la vida  
Aurretik erori zen beste dorre bat  
Babel Partyan  
Eta beste bi N.Y.-en  
Eta han galdutako harri pilaz  
Intifada bi... Palestinan  
Presa barik larrutan esnatzen  
banauzu  
Bestetan bezala amets  
Agurtuko zaitut  
Nire gatza de la vida*



Eta eskatu nahi dizugun lana, oso erraza: Nola euskaratuko zenuke izenburua?

## Txuma Murugarren

Nire anaiaren kotxeko argiak  
(l'homme, l'être, la maladie)

Gaztelupeko Hotsak, 2004

Txumaren lan berria eta bere ahots urratu ezaguna protagonista berriro ere. Baditu CD honek bizitzari eskainitako pare bat kanta eta guk baikorrena hartu dugu zuei lantxo bat eginarazteko.

Euskarazko hitzetan hainbat hutsune utzi ditugu, beste hizkuntzak lagun hartuta, osa ditzazun.




## BIZITZA TOKI EDERRA DA

*Bizitza toki \_\_\_\_\_ (1) eta ederra,  
batzuetan izugarri, bestetan zatar  
\_\_\_\_\_ (2) belarrira,  
inori ez kontatzeko isilpekoa bailitzan,  
leihotik begira, zabalera eskerga,  
galtzeraino urruntzen zen bidexkari begira,  
bizitza \_\_\_\_\_ (3) dela  
errepikatzen nizan nik,  
galdu ditut idatzitakoak, kantu zahar  
guztiak ere desagertu dira,  
baina \_\_\_\_\_ (4),  
errudunik ez baita \_\_\_\_\_ (5) itsu eusten  
zaionean*

*La vida es un sitio extraño y hermoso,  
a veces fantástico otras desagradable,  
me decías al oído  
como si fuese un secreto que nadie debería  
oír,  
mirando por la ventana al espacio infinito,  
mirando ese pequeño camino que se alejaba  
hasta desaparecer,  
te repetía que la vida es una eterna pérdida,  
he perdido mis escritos,  
las antiguas canciones también han  
desaparecido,  
pero no es culpa de nadie,  
porque nadie es culpable cuando se aferra al  
deseo de vivir.*

*La vie est un lieu beau et bizarre  
quelquefois fantastique, d'autrefois  
désagréable.  
Tu m'avais dit à l'oreille comme s'il s'agissait  
d'un secret que personne devrait écouter.  
Et moi, je regarde sur la fenêtre l'espace infini  
et ce petit chemin qui s'éloigne jusqu'à  
disparaître.  
Je te répétais que la vie est une perte  
éternelle.  
J'ai perdu mes écrits, les vieilles chansons ont  
aussi disparu.  
Néanmoins, personne n'a pas la faute,  
Car personne est coupable lorsqu'il essaie  
de s'attacher aux envies de vivre.*

Zalantzarik sortu bazaizu, jo 46. orrialdera.



# Denbora-pasak

## HITZ GEZIDUNAK

Luis Manterola

		*Izena (1)	Y	Zorrotz, bizkor	Y	Doitorra	Y	Ezeztza	Y		
		Gourmeta		Kantitatea		Jakintza mota		Nafarroa			
>				Y		Y		Y			
Itxura onekoak		>									
		Ausarta, adoretsua									
>							Bokala	>			
Diru kontua		Y	Osasuntsu	Y	Aditz bukaera	>	Hegaztien janaria	Y			
		Zalan-tzakor	Apoar-matua		Kanpoko alde						
>		Y		Y		Santuaren aurretik			... gaberik ez da kerik		
Piraten edaria		>			Ezeztza	>	Y	Artse-nikoa	>	Y	
		Etxez etxe ibiltzea			*Izena (2)			Bokala			
>				Y		Lege zahar(ra)	>	Y			
Interjek-zioa		>		Azpi (atzizkia)	>	Amnesty International	>	Y	Giga	>	
		Irudi mota		Sudurkaria		Kanpo			Bekaitz hasieran		
>			Y		Danbor mota	>	Y	Y		Y	
... egin, goragaletu		>		Itxura, irudi	>	Y		Modua	>		
		Ez txarra						... izan, bat etorri			
>			Litioa	>		Atea ixten du	>	Y	Real Sociedad	>	
Tera		>	Paradis u eta pozoi(a)	>	Y	Nerau		Y	Oxigenoa		
		Zu eta ni					Behar adinakoa soilik	>	Y		
>			Erromako enperadore bi	>			Y		Atx!	>	
Etxeko sarrera		>	Y		Helduta, oratuta eduki	>			Y	Lehena	>
		Kontson.									



## Ez hiltzeko bidaiak

Artzain bat bere basoko etxolara doa ardi bat, otso bat eta letxuga-mordoska berarekin daramatzala. Etxolara iristeko derrigorrez ibai bat zeharkatu behar du, handitua datorrena. Baina, horretarako txalupa txiki bat besterik ez du. Txalupan artzaina eta beste izaki bat, ez dago bestetarako tokirik. Artzainak ez du bidean ezer galdu nahi. Eta ibaia zeharkatu behar du. Zenbat bidaia egin beharko ditu gutxienez artzainak ibaiaren bestaldera, ezer ez galtzeko?

Zalantzarik sortu bazaizu, jo 46. orrialdera.

Zuzenketa, 46. orrialdean.



## ARGAZKI-KLIK!

Deskriba ezazu argazki hau eta ondoren saia zaitetz adierazten zer sentitu duzun:


☞ .....

.....

.....

.....

.....



*/ Kaslearen koaerinoa*



**HADE 352**



## LEKUAK

Los lugares

Les lieux

Places

I luoghi

Die Orte

Nondik joan behar dut?

Non bizi zara?

Non dago geltokia?

Udaletxera joateko?



1 Non bizi zara?  
Hementxe bertan, Txirrita kalean.

2 Aireportura eramango al nauzu?  
Nondik joan nahi duzu?

3 Mesedez, non da autobus-geltokia?  
Bertan daukazu, botika haren ondoan.

4 Udaletxera joateko?  
Horko kalea hartu eta ezkerretara jo.

**Ondoaan/aurrean/atzean**

**ezkerre(ta)ra jo/eskunie(ta)ra jo**



– Ba al dakizu hemen inguruan botikaren bat ba ote dagoen?

– Ez, sentitzen dut. Ez dakit. Izkin horretan liburu-denda bat duzu. Bertan galdetu.

– Mila esker, agur.



Kale honetatik joan, lehenengoan ezkerretara jo, segi dena zuzen semaforora iritsi arte. Plaza bat aurkituko duzu, erabat zeharkatu eta gero eskuinera dagoen kalea hartu.

**Zure txanda**

Non dago ikastola? Eta ospitalea? Eta herriko enparantza?

**Hartu/Jo/Jaitsi/Zeharkatu/Hartu**



– Barkatu, Arriaga andrearen supermerkatuko erosketa dakart. Ba al dakizu non bizi den?

– Beherago. Uste dut kale honetan bertan, 18 zenbakian. Hau 8a da.



– Nola joaten zara lanera?

– Lehenbizi, metroa hartzen dut eta ondoren autobusa. Nahiko konbinazio ona dago.

– Zenbat metro-geltoki dituzu?

– Sei, baina tren-aldaketarik egin gabe.



# LEKUAK

D




Txillida-Leku museoa bisitatu nahiko nuke.  
Nola joan naiteke?

Autobusez joatea duzu onena,  
sarreratik hurbil utziko zaitu.  
Donostiatik 15 minutura dago.

## Hausnartu

Ba al dakizu non dagoen?

Nola joan gaitezke bertara?



Hegazkinez  
Trenez  
Autoz  
Oinez  
Bizikletaz

E



- Kaixo, non utziko dizkizut edariak?
- Zuzenean, biltegian utzi, mesedez.
- Han ez dago tokirik.
- Itxaron, orduan freskagarriak atearen atzeko aldean utzi. Ur-botilak, eskailera azpian. Ardoa, erdiko apalean jarri eta... ba al duzu besterik?
- Momentuz, ez.

## Hausnartu

Tomate-potoak olioaren ondoan daude.  
Xaboi kaxa barruan dago.  
Zukuak arrozaren gainean daude.  
Azukrea esne-kutxen ezkerretara dago.  
Gatza kafea eta irinaren artean dago.



Non dago esnea?

Hantxe, ardoaren ondoan.



Aurrean  
Atzean  
Ezkerre(ta)ra  
Eskuine(ta)ra  
Barruan  
Kanpoan

Barkatu, baina ez  
dut irteera aurkitzen.

Pasilloaren bukaeran,  
eskuinera.



## ZURE IDATZIAK HOBETU NAHI AL DITUZU?

**HERIOTZA**  
Pako Sudupe

Gai zaila, iluna, gogo handirik ematen ez duena, ezta? Baina, aldi berean oso gurea, gizakiona, hilkorak garen ez gero. Bizi garen gizartean topiko gehienok onartu da heriotzarekin ez dugula ezer jakin nahi eta gizaki moderno edo postmodernok bizkarra ematen diogula, ezikusi egiten diogula, gizaki tradizionalak harreman naturalagoa zuela hildakoarekin. Ados? Lehen etxean ematen zitzaion azken agurra hildakoari elizara edo hilerria eraman baino lehen, orain tanatorio aseptikoan. Heriotzak denok berdintzen omen gaitu, goseak bizi diren afrikar, asiar, hegoamerikar edo iparramerikar edo ozeaniar eta europar behartsuak eta halaber euro-miliodun omen diren 129.000 europar aberatsak edo ez dakit zenbat dolar edo libera esterlina-miliodun diren mundu guztiko aberatsak: denok errauts! Ados zaude?

Gaiak heriotzarekin lotuak: heriotzak sortzen duen oinazea eta mina ingurukoengan. Heriotzaren inguruko lanbide bihurtu dutenak: tanatorioko enpresaburu eta enplegatuak, eskelak argitaratzen dituzten egunkariak, hilkutzak egiten dituzten arotzak eta hilobiak apaintzen dituzten marmolariak, batez ere Santu Guztien Egunean mauka eduki ohi duten lore-saltzaileak, lur-emaileak, hilerrien ardura duten udaletxeetako administrazioa...

Gai faltarik ez dugu oraingoan ere, eta horko gaiak garatuz eta konbinatuz hamaika idazlan egin litezke. Proposamen bat: idazlana lantzeko baliagarri gerta daitezkeen gaiak hirutan biltzea; pertsona hil aurreko gaixoa -bat-batekoa izan bada, ez dagoena; hil eta berehala egiten diren heriotzaren inguruko zeremoniak, erlijiosoak edo ez erlijiosoak -errausketa eta errautsak hazteza- eta heriotza ondoko aldia, hots, hildako pertsonak uzten duen hutsunea gainditu behar deneko aldia, eskema honen arabera hil eta gerokoa. Zer deritozue?



**Askotan mingarriena eta larritasun gehien sortzen duena ez al da hil aurreko gaixoa izan ohi? Batzuk bat-batean hiltzen dira, bihotzekoak emanda edo istripuz, eta heriotza horiek sortzen duten hutsune bat-bateko hori ere oso traumatikoa izan daiteke; baina, beste batzuek, denbora dezente ematen dute ondoezik eta askotan oso mingarria eta nekagarria gertatu ohi da hurbileneko senitar-tekoentzat. Hil aurreko aldia aski luzea izan denean, gisa honetako gauzak esan ohi dira: <<hala ere ez zegoen ba ondo!>>, edo <<horrela ere ez zeukan ba bizitzerik, bera zenarekin!>>...**

Iritzia emateko modu hori: *ez al da... izan ohi?*, zergatik ez duzue irakaslearekin aztertzen?

Jakina, hiruko eskema hori onartzu gero, lehenbizi, sarreratxo bat egin beharko genuke, idazlana nola garatuko dugun azalduz; bestela, lehen paragrafoa izateko, ikusten duzuen bezala, ez da oso egokia. Horretarako, nahi izanez gero, aurreko paragrafoetan badituzue ideia nahikoa.





Jo dezagun sarrera egina dugula, eta lehen paragrafoa edo bi, hil aurreko aldiari eskainiak dizkiogula. Ondotik, egungo errituak, zeremoniak aipa ditzakegu. Hori da errazena, asmatze aldetik, eta hori egin ondoren, hirugarren aldiari ekingo genioke: hildakoa hil zai-gula onartzeko behar den aldiari, egoera berrira egokitzeko denborari.

**Hirugarren aldi honen ezaugarriak hildakoaren izaerak eta hildakoak inguruko hurbilenekin zituen harremanek markatzen edo erabakitzen dituzte. Kasu tipikoa, ezkontideetako bat alargun gelditu denekoarena. Gehienetan gizona hiltzen da lehenago, eta alargunak ohitu egin behar du bizitza berrira. Senarraz bestalde, harreman ugari bazituen eta bizitza sozial aski aberatsa, segur aski errazago ohituko da senarrak utzi dion hutsunera, errazago onartuko du alarguntasuna. Oroitzapen askok lotuko dute hildako senarrarekin baina aurretik sortuak eta landuak dituen harremanek asko lagunduko diote aurrera egiten eta bizitza berrira ohitzen.**

Paragrafo honetan badaude komunztadura aldetik, izen eta aditzaren arteko komunztadura aldetik nahiko zailak direnak, esaterako, bi lerroko lehen esaldia. Zergatik ez duzue aztertzen?

Ikusten duzuen bezala, adibide bat da. Beste hainbat kasu gara litezke, eta garatzen hasi garen kasua bera ere desberdina da hil den senarra sasoikoa izan edo adinekoa edo oso adinekoa izan; alargun gelditzen dena senarra bada, orduan ere aldatu egiten da, eta beste hamaika posibilitate tartean!

Bukaera, kasu honetan, besterik gabe, hirugarren aldi hori txukun amaitzea izan liteke, baina, tira, adibideren bat ematearren:

**Bizitzaren ikuspegi erlijioso kristaua izanez gero, nolako bizimodua egiten dugun hemen, hil ondoko bizitzan ere halatsukoa egingo dugun esperantza izan dezakegu: beraz, bizitza zintzoa eta duina egiten badugu orain, gero ere beste horrenbeste. Bizitzaren ikuspegi erlijiosorik gabe ere, nor bere printzipioen arabera bizitzea eta inguruko hurbilekin harmonian, izan liteke modurik egokiena heriotzaren ideia eta gertaera bera ahalik eta lasaien geureganatzeko. Hain erraza balitz nor bere printzipioen arabera bizitzea eta hurkoekin harmonian! Hain erraza balitz heriotza lasai onartzea!**

Ez dakizuela desatseginetia gerta idazte-lana, eta abe-rasgarri gerta dakizuela opa dizuet. Ez al da gai minberetan zailtzen gure nortasuna?



## ► EUSKARAREN KUTXA



### ERE, ERE BAI, BAITA ERE, ERE EZ, EZTA ERE



ERE oso partikula erabilia eta labainkorra da euskaraz. Multzo askotan agertzen da, agertu ere.

Horrexegatik, hain zuzen ere, badu halako betegarri kutsu bat, noiznahi eta nonahi erabiltzen den giltza baillitza. Horrek esan nahi du, beste gauza asko bezala, testuinguruan ikasi beharreko moldea dela.

Arau nagusi edo argibide bezala, zera esan daiteke: ERE ez da inoiz esaldiaren edo sintagmaren hasieran jartzen, ezta adizki jokatuaren segidan ere. Bestela esanda, ERE izen sintagmaren ondoan jartzen da gehienetan edota izenkiaren (aditz-izenaren) segidan.

Partikula honen bereizgarri bat hauxe da: beti beste hitz bati (aurrean daukanari) lotuta bezala doala, haren babesean edo itzalean balego bezala. Horretaz jabetzeko, esateko moduari erreparatu besterik ez dago. Gipuzkoa aldean RE edo E esan ohi da, aurreko hitzarekin bat eginda bezala. Bizkai aldean, berriz, BE edo PE sarritan entzuten dira, hitzaren forma osoa BERE delarik.

Zenbait molde eta erabilera berezi alde batera utzirik, ERE honako multzo hauetan azaltzen da gehienbat:

- ERE bakarrik, beste edozein hitz edo sintagmari loturik. Hala nola: ni(k) ere, atzo goizean ere, gaurko jendea(k) ere...
- (ETA)... ERE BAI: aita(k) ere bai, Frantzian ere bai, hurrengo egunean ere bai...
- BAI(TA)... ERE: baita zuri ere, baita ingelesez ere...
- (ETA)... ERE EZ: atzo ere ez, oraingo zenbakian ere ez...
- EZ(TA)... ERE: ezta nahi ere, ezta bihar ere, ezta atzoko egunkariak ere...

Hizkuntza eta batez ere honelako molde bereziak situazio konkretutan ikasi behar direnez gero, hemen doaz zenbait elkarrizketa, ERE nola erabiltzen den hobeto adierazteko.

### IKASTOLAN

- A: Zu, Ander, izan al zara inoiz Aizkorri?  
 B: Ez, ez naiz inoiz ere izan, eta ez dut joateko asmorik ere.  
 A: Zer dela eta hori?  
 B: Ez zait batere gustatzen mendira joatea.  
 A: Eta zuri, Iker, atsegin al zaizu mendia?  
 B: Niri bai, izugarri gustatzen zait orain.  
 A: Eta zuri, Xabier?  
 B: Niri ere bai. Sarritan joaten gara mendira, batez ere Aizkorri. Izan ere, gure herritik (Zegamatik) oso hurbil baitago, egon ere.

### LAGUNARTEAN

- A: Aizu, Miren, ba al duzu dirurik?  
 B: Ba ez, ez dut xentimorik ere.  
 A: Eta zuk, Mertxe?  
 B: Ba nik ere ez, gezurra badirudi ere.  
 A: Zuk, Itziar, ba al duzu ezer?  
 B: Ezta ere.  
 A: Harritzekoa ere bada: lau lagun eta diru apurrik ere ez. Hala ere, goseak hiltzen ez gaude behintzat eta, lasai egon gaitzke.

### TABERNAN

- A: Zer hartu behar duk, Pello?  
 B: Nik txuria berriz ere.  
 A: Eta hik, Mikel?  
 B: Nik ere txuria.  
 A: Hik ere txuria, Jon?  
 B: Bai, nik ere bai.  
 A: Eta hik, Josu?  
 B: Baita ere.  
 A: Beno, nik ere txuria hartuko diat orduan. Bost txuri, mesedez!



## Zuzenketa-orrriak

45



## Gaurgero

- |      |      |
|------|------|
| 1. G | 5. F |
| 2. A | 6. C |
| 3. D | 7. H |
| 4. B | 8. E |



## Gaugzte

1. Adi egon, erne egon, talaian egon, soman egon
2. Zirriak egin, jolasean ibili
3. Nesketan egin, mutiletan egin
4. Musukatu, mokoka ibili

## [ i ] HERIOTZAK HIRU LEGE DITU

## Oroit hadi herioaz

Garai batean	Gaur egun
<ul style="list-style-type: none"> <li>Gaixoa bere heriotzaren eta honen inguruko gorabehera guztien jaun eta jabe izan zen.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hil zorian dagoenari bere egoera ezkutatu egiten zaio.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Gauza normaltzat hartzen zen pertsona hil egingo zela jakitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hiltzean dagoenaren ohe inguruan familiako kideak eta lagunak ez dira biltzen.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Hil zorian zegoenari ez zitzaion bere heriotza ezkututzen.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ospitaletan hiltzen dira gaixoak.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Jendaurrean hiltzen zen.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hainbat erabaki medikuntza eta etikaren alorreko kezka nagusi bihurtzeraino iritsi dira.</li> </ul>


## Heriotzak uzten duen mina

Jokabidea	Arrazoia
1.- Heriotzaren xehetasunik ez dela jakin behar eta ezta gorpua ikusi ere pentsatzea.	1.- Gogorra izan arren, maite dugun pertsona horren desagerpenaren inguruko xehetasunak jakiteak desagerpena onartzen laguntzen digu. Informazio-faltak nahastea eta errealak ez diren fantasiak sorraraz ditzake.
2.- Amorrua, mina edo etsipena negar lazgarri edo garrasien bidez adierazten bada depresiorako bidean gaudela pentsatzea.	5.- Gure kulturaren izaera tinkoa eta adorea baloratzen diren arren, emoziozko sentimenduak lasai adierazi behar ditugu.
3.- Pertsona bat hiltzean bere oroitzapena galduko dela pentsatzea.	6.- Haurrak nagusiok bezain gai dira nahigabeei aurre egiteko. Ez die-zaiegun errealitatea ezkutatu. Galerak gaintzen ikasi egin behar dute, lehenago edo beranduago iritsi egiten dira eta.
4.- Mina lehenbailehen gaintzeko eguneroko lanetara berehala itzuli behar garela pentsatzea.	4.- Hausnartu eta mina bizi izateko denbora hartzea komeni da, galerak dakarren emozioen prozesu gogor horri aurre egiteko.
5.- Falta den horren aldeko maitasuna kontuz adierazi behar dela pentsatzea.	3.- Oroitzapena eta emoziozko loturak ez dira galtzen. Iraun egiten dute eta oroitzapen iragankor edo amets gisa agertu ohi dira.
6.- Haurrak lutu egoera hauen partaide ez ditugula egin behar pentsatzea.	2.- Sentimenduak azalratzea eta adieraztea behar-beharrezkoa da, galera barneratzen eta nahigabea gertatzen laguntzen baitute, gehiegizko adierazpenak edo gutxi garatutako kultura edo herrialdeetako gauzak direla pentsatu arren.

## Joandakoan idatzita uzten duguna

- Hildakoei ez baizik bizidunei diegu, edukitzez gerotan, beldurra.
- No tememos a los/las muertos/as, sino (en caso de temer a alguien) a los/las vivos/as.





whatever you say, Basque  
 esanak esan Euskara  
 Digas lo que digas Euskera  
 Egal was du sagst sag es auf baskisch  
 Quoi que tu dises Euskara





**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SALA  
 Hizuntza Politikarako Saibotuzentza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
 Viceconsejería de Política Lingüística

**HADE**





Administrazioko langaiak  
2. hizkuntza-eskakizuna

# IZURUNGOAK



**HAD**  
HIZKUNTZA ARABARRA  
HIZKUNTZA EUSKARRA

**IVAP**  
HIZKUNTZA ARABARRA  
HIZKUNTZA EUSKARRA

Erakunde araututakoak  
Euzko Legebiltzarra



**EUSKO LEGEBILTZARRA**  
GOBIERNO VASCO



**LEIZAOLA 6**  
EUSKARRA

